

# berkeleke

2005eko EKAINA,  
134. ZENB. DOHAINIK

juan ramon llavori  
indiako gizartea  
erretratatzen

## HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

### Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

### Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

### Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

### Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbietta

Itziar Garate

Izaskun Urbietta

Maitane Agirre

Lure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

### Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Joanito Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Karmelo Arroiabe,

Gorka Ormazuri, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia, Beñat

Fernandez de Arroyabe, Ihintz

Linazisoro, Jon Maia, Eguzki

Agirrezabalaga, Natur Taldea, Ander

Hormazuri, Aitor Manterola, Imanol

Garate,

Joseba Esnal

### Azalaren argazkia

Juan Ramon Llavori

### Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

### Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

### Publizitatea

943 86 15 45 tel.

### Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

### Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

**Baleikek** ez du bere gain

hartzeko aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien erantzukizunik.

## aurkibidea

librean .....	4
puntocom .....	7
ze berri? <b>zumaiarrak betizun</b> .....	8
<b>kursaalean bertsoan</b> .....	11
erreportaia <b>algorri ezagutza etxea</b> .....	12
orain hamar urte .....	15
euskara <b>ebpn bere ekuadorrean</b> .....	16
elkarrizketa <b>juan ramon llavori</b> .....	20
sendabelarrak .....	24
kirola euskaraz .....	25
gure zumai zarra <b>joxe manuel manterola</b> .....	26
kultura .....	30
<b>musika</b> <b>divergentes</b> <b>arte</b> <b>zine forum</b>	
agenda .....	38



ze berri  
**telmo eta elena**  
zumaiarrak aurten ere  
betizu telebista saioko  
protagonistak

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



**Zumaiako Udala**



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



**gizarte ekintza**



**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO



**GIPUZKOAKO**  
FORU ALDUNDIA

## Itsasotik zerura

Maiatzak 13 ostirala. Arratsaldeko zazpitan, Arroagoian, artalde handi bat, artzaina, bost bat laguntzaile, zaldia (porteadore lanetan) eta nola ez artzainak hain lagun ona izaten duen txakurra, itsas ondoko belardietatik zeru ondoko belardi zabaletara irteteko prest gaude.

Inaziori, artzainari, negua Arroagoian pasa ondoren, Aralar alderako bidea hartzeko garaia heldu zaio.

Ardien dunba hotsak tarteko, Iraeta aldera abiatu gara ardién pauso motzean.

Aizarna eta aizarnarrak azaldu zaizkigu hurrena begiak zabal guri begira.

Bi ordu eta erdian Etumetara iritsi gara, gaueko hamaikak dira, ilunak hartu du ingurua eta goseak gure barrena; beraz, afaltzea tokatzen da. Bapo afaldu ondoren, kafe ongarritu eta guzi berriro martxari heldu behar; Ernio alderantz abiatu gara, frontalak eta linternak piztuta.

Aldapak aldapari erreleboa ematen dion bide harritsuana gora herrietako argiak ikusten ditugu atzera begiratzean; zeruan ere laino beltz potoloak bistatu dira eta euri usaina gero eta nabarmenagoa da. Ditxosozko euriak bisitatu gaitu, baina, beno, basoaren babesean goaz eta ez gaitu berak nahi hainbeste busti.

Halako batean, Ernio gailur zoragarria azaldu da, benetan diot zoragarria, zeren zeruan izarrak ere bistatu dira eta Ernio Harkaitz handia argiturik bezala ageri da gure aurrean, ederra!

Gaueko ordu bat eta erdiak dira Zelatuna iritsi garenean eta handik Bidanirako bide harritsu eta lohi-tsuana behera abiatu gara.

Laurak dira Bidanira heltzerako. Han lagun gehiago daude zain errepideko tartea zeharkatzeko.

Loak ere gure jabe egin nahi luke, baina ez. Pilotu automatikoa jarri eta aurrera goaz pausoa pausoi txandatur.

Bostak Santutxun! Kafe ongarritua dugu berriro gure zain, logurak ederki uxatu ditu infernuko zulora.

Mendi bidean sartu gara eta eguna keinuka hasi zaigu eguzki izpi goxoz. Zazpiak eta erdietan Legorretan gaude, bokadiloiei gure hortza zorrotzak bapo sartuta.

Ertzainek eskoltatuta, Itsasondo, Ordizia eta Zaldibia-ra iritsi gara, hankak astun dauzkagu jada.

Zaldibiakoa da Inazio artzaina eta jende askok agurtu gaitu, baina oraindik Ernaitza baserrira igo behar dugu. Tourmalet bat bezalakoa da harainoko aldapa.

Hamaikak! Iritsi gara Ernaitzara, helmugara, ardiak jota daude, baita gu ere, baina gustura gaude hamasei orduko ibilaldia eta gero.

Ondo-ondo bazkaldu. Nola ez, arkumea dugu bazkaritarako. Gaur tokatzen da, ezta? Artaldea bihar igoko da goiko larreetara eta gu eguerdiko ordu biak eta erdiak aldera ohera goaz. Ziur nago ez dela ardiak kontatu behar handirik izango lo hartzeko: bat, bi.... lo.



Unai Gijarro Iruretagoiena

dani



## politikoen "hixkera"



xa 2

esanda. Nere astelehena izan zitekeen parrandagatik, baina ez, gaurkoan politikagatik da. Ez al zaudete azken aldian politikoeekin nekatuta bezala, nola esan, buruko min puntu batekin, hortxe xor-xor kazka-hezurrean barrena. Parlamentuko mahaia osatu dute, Atutxak ezingo du berriz ere bizkaitarrez jardun beto-beto (ui! subkorszientearen tranpak! peto-peto esan nahi bainuen). Baina talde parlamentarioekin kromotan bezala jardun dute, egiten dutena inoiz baino gehiago joku parlamentarioa dela erakutsiz. Jolasa. Baina astelehenaz ari ginen, politikoez beren hitzekin sortzen didaten buruko minaz. Beren hizkerak, beraien euskerak

ematen dit min. Aspaldi esan zuen gure etxeko andreak, 'Nork asmatu du hixkera hori?'. Gaur egun zenbat politikari dira gai euskaraz taxuz jarduteko? Gutxi, bestela oso ondo engainatzen gaituzte. Adibide bat. Larunbatean Bilbon manifa jendetsua. Krespoi beltzak ikurriñetatik zintzilik. Bukarar, Azkunaren batzartokiaren aurrean betiko lez mitina edo speecha bota zuen Arnaldok. Atzoko (igandea) egunkariak titularretara zera eman zuten, gatazkaren konponbiderako mahaia datorren Aberri Egunerako martxan egotea. Aberri Eguna iristen dan! Dena dela, guk beste proposamen bat egin genuen titularretarako eta baita manifestako kontsigna bezala erabiltzeko ere: Arnaldo Barnetegira Orain! Eta berekin koadrila politiko guztia. Posible al da 2005ean manifa nazional batean aditzak bere tokian jartzea kostatzen zaion hizlari bat milaka lagun aurrera lotsarik gabe ateratzea. Urduritasuna izango zela diote batzuk. Erderaz urduritasunik ez zen somatzen. Ni, egitan, euskaldun bezala oso gaizki deklinatua sentitu nintzen. Iraindua ez, gutxietsia ere ez. Gaizki deklinatua. Uda gainean dugula, oportetarako gu nahiko gara, bai, eta beraiek barnetegira bidaliko nitzuke. Arantzara edo Lazkaora, edo Ondarroara. Orain bakea Orain Herria Orain Barnetegia! Ze iruitzen? Salbuespenak badira, bai, baina ea 'hixkera' hori aldatzen diegun behingoz. Agian hori da elkar ez ulertzearen arrazoia.

mxk

## ZOZKETA MUNDIALA!!

Erein argialetxeak emanda Imanol Azkueren "Egunerokoa ez dena" liburuaren lau ale zozketatuko ditugu gure irakurleen artean. Horretarako galdera hay erantzun beharko duzue:

**"Gaur egun handia da" ipuinarekin zein sari garrantzitsu jaso zuen?**

Pista bat: Zarauzko olerkari handi baten izena du.

Erantzunak aldizakaria@baleike.comera bidali edota Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behe) ekainaren 30a baino lehen. Erantzunekin batera izen abizenak eta telefono zenbakia jarri.



Parte hartu eta zorte on!!

## ORGANO ETA EHUNEN EMAITZAREN BEHARRA

ALCER-Gipuzkoa. Giltzurrun gaixoen elkarte

ALCER-Gipuzkoa elkarteak, urtero, organo eta ehunen emaitzaren aldeko sentsibilizazio kanpainak bultzatzen dihardu, Emailearen eguna ospatuz, beti ere transplante baten zain dauden pertsona askoren behar larria pairatzeko asmoarekin.

Ekaineko lehenengo asteazkena, aurtengoan hilaren 1a, emaillearen eguna bezala izendatuta dago. Egunaren omenez, ALCER-Gipuzkoak informazio eta emaile hartze kanpaina bat programatu du, komunikabide eta paziente, senide eta boluntarioen partehartzearen laguntzarekin, ekainaren lehenengo aste honetan garatu dena.

ALCER-Gipuzkoari dagokionez, mahai informatiboak ipini dira kalean, 30 herri baino gehiagotan, batez ere ekainaren 4 eta 5ean, emaile eginez biztanleriak bere solidaritatea adieraz zezan.

Gure Autonomi Elkartean, emaitzak eta transplanteak punta-puntakoa maila lortu dute bai kopuruz bai kalitatez. Baina, emaitzaren eta transplanteen aurrerabideen euforia eta triunfalismo gara honetan, biztanleriak egoera arras moldatua eta bideratua dagoela pentsatzeko arriskua dago, eta emaitzarekiko bere

solidaritate maila jaistekoa.

Euskal Autonomi Erkidegoan 2004. Urtean, familiartekoen ezetza %6 izan zen, estatu mailako batz bestekoa %19 izanik eta beste herrialde batzuetan %30 baino gehiagokoa izanik.

Ez genuke ahaztu behar, gainera, emaitza eta transplanteen etengabe-ko beharrak jarraitzen duela, desproporzio nabari batean: gaixotasun berrien eta transplante bat behar duten paziente gehikuntzarekin, eta emaitza erreal bat gertatu daitekeenaren aukera eskasekin (ospitale sareetan hiltzen direnen %1 soilik).

Horregatik, urtetik urtera egiten dugun bezala, zuen lankidetzagarrantzitsua jotzen dugu, orain edo aurrerago emaitza baten beharrean daude pertsonekin mezu solidario bat gizartera helarazteko orduan.

Mediku-terapeutiko aurrerabide handiak, azpiegitura sanitario eta botikena, transplanteen garapenean emaitza onak eskaintzen ditu. Baina emailerik gabe ez

dago transplanterik. Errealitate hau emaile eta bere senideei esker gertatzen da. Horregatik, errealitate hau gorantz mantentzeko, beharrezkoa da muxu-trukeko partehartze eta mentalizazioaren aldeko saiakera egiten jarraitzea.

Erakunde honen Urola Kosta eskualdeko delegazioak Zarautzen, Urdaneta kaleko 12 atzealdean du lokala. Asteazkeneko 14:30etik 19:00etara izaten dira bertan eta han jaso daiteke donazio eta transplantei buruzko informazioa. Telefono zenbakia 943830943 da.

### UROLA KOSTAKO DATUAK

Herria	Giltzurrun gaixoak	Emaileak
Aia	.1	.40
Aizarnazabal	.1	.25
Azkoitia	.9	.931
Azpeitia	.12	.929
Beizama	.	.8
Errezil	.1	.5
Getaria	.6	.266
Orio	.7	.351
Urrestilla	.	.14
Zarautz	.22	1.717
Zestoa	.5	.263
Zumaia	.9	.756
Guztira	.73	5.305

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ

San Telmo, 12  
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

**EGUZKI**  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

**TOMAS  
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak


E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

# gaztetxea orain!

**B**oto zaparrada jaso dugu maiatzean egindako galde-rarekin. Behar al da Gaztetxe bat Zumaian? Ba inkestan parte hartu dutenen ustetan bai. Boto emaileen erdiak baino gehiagok honen alde egin dute. Erabiltzaile batzuk, ordea, ez daude guztiz ados eta herriko gazteak "etxea teilatutik" egin nahian ari dilera diote. Webgunean izan da, bai, mugimendua. Divergente-sen gaiak jendearengan interesa sortu du, nahiz eta gehientsuenek onartu ulertzen ez dutela. Hemen azpian maiatzean izandako zenbait iritzi dituzue. Gehiago baleike.comen aurkituko dituzue.

## INKESTA



## IRITZI BATZUK

- AK-47** 2005/05/11 - 10:34 PM  
Ezetz ezaten dutenak ze proposatzen dute? Eliza gehiago gasteentzat? Iorritzi garatugakoak? farola fashionagoak? edo dirutza bako duen mamoleko ipurdiak? Gasteentzatik ez arduratu, lasai aratortu zuloenbaten zartuko gela Inori embazuk ez iteko.
- Itziar** 2005/05/12 - 09:25 AM  
Nik ezetz botkatu det, baina ez Zumaian Gaztetxe bat nahiko ez nukelako. Arazoak lehen ere eman nituen: non daude Zumalako gazteak? Zerbaite antolatzen dute? Ekintzak, taldeak, dinamikak dituzte? Orduan zertarako behar dute Gaztetxea, tabeman bezala egoteko?  
Etxea teilatutik nahi duzue hasi: demostratu grifa dagoela, egin bilera, antolatu gazteak, eta orduan konturatuko zarete egiten ari zaretan horiek stopa bat behar duela, eta stopa hori Gaztetxea da. Baina bitartean, zertarako Gaztetxea?

- Behat** 2005/05/13 - 11:20 PM  
ITZIAR BESOAK GURUTZATUTA EZIN DA EZER EGIN NIK PROPOSATU DET BERRI BATEAN ELKARTZEKO BILERA ANTOLATZEKO , PREST EGONGO AL ZINAKE?
- zei-zen** 2005/05/16 - 07:04 PM  
Ni ere Itziarrekin bat nator. BEHAR al da Gaztetxe bat Zumaian? Nik ez dut uste, ez bait dago gazte ekimenik. Garai bateko gazte batzordeak ekimen falgatutik dezerin zen. Tabemarik gabeko, kulturguna zoil bezala funtzionatuko lukeen lekai bat edukirik gero gazteak, etorkizunik izango al luke? Agian pessimista izango naiz, baina ez dut uste ekimen asko egongo liratekeerik.
- zei-zen** 2005/05/16 - 07:09 PM  
PD: Gazte batzordea ekimen falgatutik dezerin zela diot sureko mezuan. Zuzenketa: ekimenak sumera eramateko konprometitutako jende falgatutik dezerin zen ZOR.

dekorazioa

# ALBERDI

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUTZ  
(GIPUZKOA)  
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu  
...mantenimendua  
Nekazaritza zerbitzuak  
Kiral zelaien mantenimendua  
Txostenak ...  
aholkularitza teknikoak,  
Balorazioak

Nekazaritza Injineru Teknikoak

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 943862309

# Alberdi

Gizonetzkoen moda

Erribera kalea, 6  
Tel. 861155

# GANBARA

Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

# Zumaia Hotela

Alai Auzategia  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64

telmo idigoras eta elena yeregi betizuko partaideak

# "Gustatzen zaigu jendeak ezagutzea, baina puntu batetaraino"

IZASKUN URBIETA

Baleike-ren beste zenbaki batzuetan irakurri dugun moduan, Zumaiak harrobi ona dauka batik bat kirolaren inguruan, baina artistak ere baditugu herrian. Gaztetxoak, bai, baina artistak. Beraz, behin eta berriz entzun dugun esaera hori: "Zumaiarrak leku guztietan daude" egia dela esateko moduan gaude. Horietako kasu bat gaztetxo hauena da. Telebistan casting bat ikusi, deitu, eta aukeratu egin zituzten. Hasiera zen hori, beharbada urruti xamar ikusten da, baina seguru esan daiteke horrela jarraituz gero, beraiek izango direla urruti iritsiko direnak. Animorik ez zaie falta, behintzat.

## telmo idigoras

### Zergatik aurkeztu zinen Betizuko lehiaketara?

Egun batetan lasai-lasai telebista ikusten nengoela, bat-batean casting bat ikusi nuen; dantzatzeko eta kantatzeko pertsonen bila zebiltzan. Nik amari ezer esan gabe deitu egin nuen eta handik 2 egunetara beraiek deitu zidaten Miramonera joateko probak egitera. Orduan ez ninduten hartu, baina hurrengo urtean akademiara joateko bai.

### Gurasoek zer iritzi dute?

Gurasoak gustura daude, denean laguntzen didate. Badakite mundu hau gustatzen zaidala eta saiatzeko animatzen naute.

### Zer moduzko esperientzia izan da telebistan agertzerena?

Hasieran pentsatzen nuen saiorako hartzen baninduten lotsa pasatuko nuela. Gainera telebistara joan eta kamara pila batekin topatu nintzen, eta orduan pixka bat lotsatu egin nintzen. Baina oso gustura nago. Lehenengo akademian sartu ginen eta bertan gala bat prestatu genuen. Ondoren, kantatzen jarraitu genuen eta reality-showrako esketxak grabatzen hasi ginen. Horrek asko lagundu zigun gehiago espresatzen eskenatokian.

### Diskoa atera duzue. Nolako izan da grabaketa?

Hilabete da atera dugula. Nire lehenengo diskoa orain dela 2 urte grabatu nuen. Bestea orain dela urtebete eta hau izan da azkena. Lehenengo 2 diskoak akademiako taldearekin eta lehenengo Betizuko taldearekin grabatu genuen. Baina azken honek ilusio berezia piztu zuen gu laurongan. Grabatu baino lehenago pare bat entsegu egin genituen eta azkenik Andoaingo Garate estudioetan bukatu genuen.

### Kantak zuek asmatu al dituzue?

Ez. Guri kantak eginda eman zizkiguten. Aitor Furundarena eta Joxe Mendizabalek egin zizkiguten. Gero letrak guri eman eta musika instrumentalaren gainetik entseatu egin genuen. Diskoak 12 kanta ditu. Ez ditugu abestiak guk aukeratzen, baina bakoitzari dagokion esti-

Nikol  Enea

**TABERNA**

Amaiako plaza

ad

**AUTOS  
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85

loko kantak ematen dizkigute. Hau da, abesti batzuk laurok batera kantatzen ditugu, baina gero bakoitzak bere estiloko kantak ditu.

### **Ondo konpontzen al zara taldekideekin?**

Bai, jada 2 urte dira elkarrekin gabiltzala eta, horren ondorioz, konfiantza asko dugu elkarrekin eta oso ondo moldatzen gara.

### **Pelikula bat ere egiten ari zarete. Zeini bururatu zitzaien ideia? Nortzuk agertzen zarete?**

Gabonetan esan ziguten udaran sorpresa handi bat izango genuela eta hori pelikula izan zen. Ideia, Alberto Gorritiberea zumaiarrarena izan zen. Lehen egiten genituen esketxen gidoilaria ere bera zen.

Bestalde, pelikulan taldeko laurak agertzen gara. Gero, Euskal Herriko antzerki eskoletan casting batzuk egin zituzten eta Alex Merino eta Francis aukeratu zituzten. Azken horrek 2 pelikula egin ditu: "El rey de la granja" eta "Frio sol de invierno". Horiekin batera, Eric Larrañaga eta Goenkalen ertzainburu egiten zuen Andoni ere agertzen dira. Azkenik, Reyes Moredes (Hospital Centraleko harreragilea dena) eta Azpeitiko neska bat.

### **Egia al da Zumaian grabatzen dela? Zertaz doa? Noiz izango da estreinaldia?**

Bai. Nik gidoian ikusi nuen "Zumaia, playa, dunas". Eta Albertori galdetu nion ea Zumaian grabatu behar genuen eta baietz esan zidan. Zazpi bat sekuentzia grabatu ditugu eta hiru Zumaian. Baina oraindik beste batzuk grabatzeko falta zaizkigu. Argumentua erreza da. Taldeko laurak lagunak gara eta beti elkarrekin gabiltza kantatzen eta dantzatzen. Egun batean bakoitzari kanta bat iristen zaigu esanez ea nahi dugun disko bat grabatu bakarka Londresen. Taldekide bakoitzak ez diogu beste hirurei ezer esaten eta bat-batean denok han egiten dugu topo. Estreinaldia ez dakit zehatz noiz izango den baina irailean.

### **Kalean ezagutzen al zaitu jendeak?**

Bai. Adibidez, behin Frantziara joan nintzan gurasoekin eta han ezagutu egin ninduten. Egia esan, gustatzen zait jendeak kaletik ezagutzea, baina puntu bateraino. Bestela, azkeneko nazkatu egiten zara. Askok diote telebistan agertzen denean norbait fama burura igozten zaiola.

### **Zuri gertatu al zaizu antzekorik?**

Ez. Nik beti bezala izaten jarraitzen dut. Gainera, ez dut ulertzen zergatik igo behar den fama burura. Azken finean, zertarako balio dizu horrek?



## **Motxean**

**Izena:** *Telmo Idigoras*

**Adina:** *15 urte*

**Gustuko herria:** *Zumaia*

**Gustuko taldea:** *Eskorbuto*

**Gustuko telebista programa:** *"Los Simpson", "Los Serrano" eta "Goenkale"*

**Gustuko ikasgaia:** *Matematika*

**Gustuko pelikula:** *"Inteligencia Artificial"*

**Afizioak:** *futbola eta musika*

**San Telmo edo San Pedro:** *biak*

**Amuletorik:** *ez*

### **Zer proiektu dituzu udarako?**

Ekainaren 5ean Betizuko jaialdian parte hartu genuen gure diskoa aurkezten. Ondoren, kontzertuak ditugu ekainaren 24an Mungian eta uztailaren 1ean Zumaian. Kontzertu gehiago ere izango ditugu, baina ez dakit noiz. Horretaz aparte, pelikula filmatzen jarraituko dugu.



## Elena Yeregi

### Zergatik aurkeztu zinen Betizuko lehiaketara?

Lehenengo BT 2.0ko castinga ikusi nuen, musikal bat egitekoa. Niri dantzatzea eta kantatzea asko gustatzen zaidanez, apuntatu egin nintzen, baina ez ninduten hartu, finalen geratu nintzen. Gero Show BTrako deitu zidaten eta animatu egin nintzen eta hartu egin ninduten.

### Gurasoek zer iritzi dute?

Gurasoek hasiera-hasieratik lagundu didate. Amak, adibidez, beti animatu nau eta esaten zidan ondo egiten nuela eta apuntatzeko. Beraiek ere oso gustura daude.

### Zer moduzko esperientzia izan da telebistan agertzearena?

Oso ona eta, gainera, esperientzia berria. Bestalde, lagun pila bat egin dut eta mundu berri bat ezagutu dut.

### Ez dizu lotsarik ematen?

Telebistan, adibidez, grabatzeko garaian baino, gero neure burua telebistan ikustean. Eta jendeak kalean ezagutzean ere bai.

### Aurkezle lanetan zabilta. Gustukoa al duzu?

Orain dela 2 aste bukatu nituen programako grabazioak eta ekainaren bian emititu zuten "Zuzen" programako azken saioa. Oso gustura sentitu naiz. Gainera, kamerak lehenago ere ezagutzen nituen. Jendea oso atsegina da eta asko lagundu didate. Hasieran kolaborazioak egiten nituen, erreportari lanetan. Gero, okerkeriak ere egiten nituen. Ondoren ingurumenari buruzko lehiaketa bat aurkeztu nuen, baita Kaikurena ere. Azkenik, pelikulari buruzko erreportajeak egin nituen.

### Zer duzu nahiago: talde batean abeslari aritzea edo aurkezle lanetan aritzea?

Aurkezle aritzea gehiago gustatzen zait. Kantatzea baino, dantzatzea gogokoago dut. Adibidez, ez zait bate-re gustatzen nola abesten dudana, orduan nahiago dut aurkezle izatea.

### Ba al duzu anekdotarik kontatzeko?

Bai. Behin, zuzeneko programa egiten ari nintzela, lehiakideak galdera asmatu egin zuen, baina panelean laukitxoa beltza agertu zen, hau da, asmatu ez balu bezala. Orduan, nik errejidoreari begiratzen nion, eta esaten zidan baietz, asmatu zuela. Ordenagailua puskatu egin zen eta konpondu bitartean nik umea entretenitu egin behar nuen. Baina eskolan zer moduz zebilen galdetu nion eta berak erantzun zidan ez zela eskolara joan, gaixo zegoelako. Oso momentu txarra pasa nuen, eta gainera nire bigarren eguna zen eta lotsa-lotsa egin da nengoen.

### Inoiz gelditu al zara zer esan ez dakizula?

Bai, lehenago aipatu dizudan kasuan. Gainera, gertatzen zitzaidan beti "beno" esateko ohitura nuela. Grabatzean

## Motxean

**Izena:** Elena Yeregi

**Adina:** 15 urte

**Gustuko herria:** Zumaia

**Gustuko taldea:**

*Berri Txarrak*

**Gustuko telebista**

**programa:**

*"Vaya Semanita"*

**Gustuko ikasgaia:** Ingelesa

**Gustuko pelikula:** "El viaje de Carol"

**Afizioak:** musika entzun, dantza egin eta lagunekin egotea

**San Telmo edo San Pedro:** San Telmo, sanpedrotan ez nago-eta hemen

**Amuletorik:** ez, baina lagunak emandako pultserak ibiltzen ditut

ez nintzen konturatzen, baina gero etxean ikustean bai. Eta hori konpontzen saiatu nintzen.

### Gustuko al duzu jendeak kalean ezagutzea?

Bai. Umeak ezagutzea gustatzen zait, baina, adibidez, beste herrietako festa batzuetara joaten banaiz, nire adineko pertsonak eta zaharragoak hasten dira: "Hi beitu zak, hori Betizukua ek!". Horrek lotsa handia ematen dit.

### Askok diote telebistan agertzen denean norbait fama burura igotzen zaiola. Zure kasua al da?

Nik uste dut ezetz. Nire ustez hori da garrantzitsuena, hau da, fama ez igotzea burura, igoz gero burua goioan jarrita joaten zara eta hori ez zaio jendeari gustatzen.

Niri ez zait iruditzen gertatu zaidanik, ni ez naiz nire lagunak baino gehiago sentitzen.

### Ze proiektu dituzu?

Udaran, hurrengo ikasturterako zein programa eman behar dituzten erabaki behar dute eta esan zidaten beharbada deitu egingo zidatela. Beraz, ikusiko dugu.



# Zumaiarrak Kurasaaleko eszenatokian bertsoan

Maialen Velardek saio bikaina egin zuen handien mailako finalean

JON MAIA

Ekainaren 2an Donostiako Kurasaalen Eskolarteko bertsolari txapelketaren 25. urteurrena ospatu genuen. Txapelketa hau da, zalantzarik gabe, gaur egungo bertsolaritzaren harrobiaren ekimenik garrantzitsuena. 25 urte hauetan bertan parte hartu duten milaka haur eta gaztetxoak dira, gaur egun, plazaz plaza, kantari zein entzule modura dabiltzan bertsolari eta bertsozaleak. Eta txapelketa honen historian,

lerro garrantzitsuak idatzi ditu Zumaiako Bertso Eskolak, hastapenetatik gaur egunera arte.

Josu Garate, Joxe Joakin Aizpurua eta Jon Maia daude 25 urte hauetako txapeladunen artean, eta talde mardula osatzen dute noizbait finalean kantatu izan dutenek ere.

Bertso idatzietan ere ehunka haur dira gure herritik parte hartu izan dutenak, eta sariak ere ugari izan dira.

Aurtengoa urte berezia izan da 25. urteurrena dela eta, eta horregatik eraman dute finala Kurasaalera. Eta,

nola ez, han izan da berriz ere Zumaiako ordezkaritza, nola taula gainean kantari, hala bertso paperetan sari jasotzen. Handien mailan, Maialen Velardek kantatu zuen, jadanik eskarmentu handia duten beste bertsolarigai askoren ondoan: Gaztelumendi anaia, Alaia Martin, Hodei Iruetagoiena... eta Maialenek bere dohainak erakutsi zituen, saio ederra eginez. Lehenago ere

aritu izan da Maialen Euskal Herri mailako finalean, txikien mailan, eta orduan bigarren saria eskuratu zuen. Oraingoan ez du saririk lortu, baina denen ahotan ibili zen gure neska trebearen izena, azken unera arte lehenengo bietan geratzeko hautagai argia izan baitzen. Lortu ez arren, kontentu ziren bera eta bera animatzaera joandakoak, egindako lanarekin.

## Bertso paperetan ere sarituak

Bertso paperen atalean, Zumaiako bertso eskolako eta Maialenen kide diren Markel Peñalbak eta Manex Elolak ere finalisten saria jaso zuten. Txikiagoetan, berriz, Ainhoa Caporossik lortu zuen finalista izatearen ohorea. Esan beharrekoa da meritu handikoa dela azken hautatuen artean egoteak, ehunka baitira kategoria bakoitzean parte hartzen duten neska-mutilak. Horrek guztiak argi erakusten du bertsolaritzak Zumaiako, eta Zumaiako bertsolaritzak Gipuzkoan, leku garrantzitsua duela, egindako lanak fruituak ematen dituela eta ziurtatuta dugula etorkizuneko bertsolaritza gure herrian.

Zorionak Maialeni eta gainerako sarituei, eutsi maila horri eta jarraitu gure belarriak gozatzen!



## H o r t z k l i n i k a

**MOZÈS HIRIART eta SOULIER**  
Odontologoak

- \* Odontologia orokorra
- \* Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- \* Endodontzia
- \* Inplantologia
- \* Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- \* Protesia
- \* Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

**Larunbatetan egun osoa zabalik**

Maria Etxetxiki kalea, 1 behe. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278



**ALBAITARITZA  
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
-ALBAITARIK-

astelenetik ostegunera 16:00-19:00  
ostiralak 11:30-19:00  
larunbatak itxita  
**aldez aurretik deitu**

Basadi, 7 behea  
Tel. 943143310  
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean

# Flysch a eta Zumaiako naturaren barna

*Kretazikoaren amaiera aldera sortua, Zumaiako harraldean ikus daitekeen fenomeno naturalak, flyschak, zientzialari eta geologi ikasle ugari ekarri ohi ditu Zumaiara. Orain 10-15 urte gai honen inguruan zerbait, museo bat edo interpretazio etxe bat martxan jartzeko borondatea piztu zen herrian, eta orain dela bost urte Zumaiako udalak harrizko 'hojaldre' erraldoi hori ikertzeko zentroa martxan jartzeko apustua egin zuen. Bide horretan, zenbait arrazoi direla medio, asmoa atzeratu egin da eta azkenean ekainaren 2an zabaldu zituen ateak 'Algorri' Zumaiako naturaren ezagutza etxeak.*

**JUAN LUIS ROMATET**

---

Hainbatetan entzun dugu flysch hitza, baina... zer esan nahi du? Zientzialarien esanetan, flysch-a histori liburu erraldoi bat da. Liburuan orriak nola, gure itsasertzeko labarretan ere halaxe daude pilatuta ehunka harri xafla. Fenomeno horren izen geologikoa "facies flysch" da, alemanetik hartutako terminoa, irristatzea, isurtzea edo labaintzea esan nahi duena.

Aranzadiko kide den Jesus Altunaren esanetan, mundu osoan ikus daiteke fenomeno. Gureak, ordea, badauka este

lekuetako flysch-ak ez duen berezitasun bat: zutik egotea. Orain milioika urte lur barneko indarrek zutik jarri zuten euskal kostaldea, eta bertako geruzak agerian utzi zituzten. Altunaren esanetan, faktore hau, geruzak zutik egotea, ez da beste lekuetan gertatzen eta horrek Lurraren iragan urruna ikertzeko leku aproposa bihurtzen du Zumaiako harraldea.

Dinosauroak desagertu zireneko bidaia batean murgiltzen gara hemen. Algorriko puntan, Kretazikotik hasi eta Tertiarioa bitarteko trantsizio geologikoko harri sedimentarioak ikus daitezke. Lurrean bizi ziren espezieen erdia



baino gehiago desagertu zen garaian jalki ziren harri horiek. Beste zenbait animalia eta landareekin batera, dinosauroak ere orduan desagertu ziren.

Horrek, hain zuzen, azken urteotan ezaguna egin den iridioaren gaira garamatza. Iridioa metal oso bakana da Lurrean, eta, dirudienez, Zumaiako kostaldean ageri da. Kretaziko bukaerako sedimentuetan aurki daiteke metal hau, baina maila oso txikian. Algorri eta Itzurrun inguruan, ordea, kontzentrazio askoz handiagoan aurkitzen dela diote zientzialariek, 10 aldiz eta batzuetan 100 aldiz handiagoan. Ustez, iridio horren jatorria kosmiko da. Kretaziko eta Tertziarioaren arteko muga horretan, iridio kopurua edo antzeko beste metal

batzuen, eta Lurretik kanpoko aztarnen kopurua, berdintua da. Datu horiek indartu egiten du hasieran esandako hipotesia; alegia, meteoritoak Lurraren kontra jo eta, ondorioz, iridioa munduan barreiatu zela.

### Herriko natura ere bai

Geologiak garrantzi handia du, baina 'Algorri' ingurua ezagutzeko etxea hori baino gehiago da. Edukia prestatzerakoan, Zumaiako naturak, bertako ekosistema desberdinek beraien lekua izan dute. "Ortzadar" enpresarentzat aholkulari lanetan aritu den Gontxalo Torrek dioenez, "Kostaldean ikus daitezkeen sistema guztiak jaso nahi izan dira, ez itsaslabarra bakarrik. Oikiatik hasi eta Algorrira bitarteko ibilbide bat egin nahi izan dugu ekosistema bakoitza ezagutzeko klabeak eta adibideak emanaz: leku bakoitzeko baldintzak zein diren, izakiek bizitzeko zer baldintza behar dituzten eta abar erakutsiaz. Geologiari ere garrantzia eman zaio, noski. Edukia prestatzerakoan,



ikuslea kontzientziatu nahi izan dugu. Horretarako, mezu bat eman dugu: balio handiko altxor bat dugu hemen, baina mantendu eta kasu askotan berreskuratu egin behar dugu".

Izan ere, Zumaiako naturgune edo ekosistemei buruzko informazioa jasotzen da 'Algorri' etxean: Oikiako parajeak, Beduako uharteak, artadiak, padura, Santiagoko dunak, itsasadarra, harraldea, etab. Herri txikia izan arren, naturgune ugariak eta interesgarriak ditugu hemen eta horiek erakustea da ingurunea ezagutzeko zentro honen helburua. Hala dio Ingurumen zinegotzia den Mikel Olaizolak. "Herriak duen altxor hau herritarrei eta kanpotik datozenei erakusteko helburuarekin sortu da

'Algorri'. Baina ez dugu nahi museo hotz baten antzekoa izatea: zentroan ikusten dena kanpoan ikustera animatu nahi ditugu", dio zinegotziak. "Zumaiako ingurumeneko hezkuntza zentroa izatea nahi dugu. Horretarako ibilaldiak, tailerrak eta ikastaroak antolatuko dira", azaldu du Mikelek.

Bost urte behar izan dira ingurunea ezagutzeko zentroa martxan ikusteko. Irekitzeko ekitaldian alkateak azaldu zuenez, zentroa egitearen ideia aurreko legealdian sortu zen, baina zaila izan zen gauzatzen. Horretaz gain, hiltegi zaharra berritzen ari zen enpresak porrot egin zuen eta hainbat hilabetetan jarduera geldirik egon zen. Zentroaren edukia prestatzea eta kudeatzea lehiaketa bidez egin zen. Panelak eta bestelako edukia "Ortzadar" enpresak egin ditu. Ikus-entzunezkoen gelan erakusten den hiru dimentsioko film laburra, berriz, "Ikusi Multivisión" etxeak.


Bi solairu ditu ingurunea ezagutzeko etxeak. Beheko



*Era guztiotako instalazioak etxebizitzan, fabrilari eta herriko arzetan*

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23  
Tel. mugikorra: 608 143409



BASADI 28  
20750 ZUMAILA  
GIPUZKOA

**ADI**

tel. fax. 943 535 157  
E-mail: adie@euzkoinet.net

solairuan sarrera areto bat dago. Panel batzuetan herriko berezitasunak ematen dira eta personaia batzuen historiak ere bai, hala nola, Joxe Mari Zubia "Aita Mari"-rena. Zumaia izenaren jatorria aztertzen duen panela ere ikus daiteke 'Algorri'-ren sarreran. Beheko solairuan laborategi bat eta liburutegi bat daude, biak ere ikertzaileei zuzenduak. Goiko solairuan, berriz, hainbat gairen inguruko gelak daude: herrian aurki ditzakegun ekosistemak, urradura plataformak eta itsaslabarrak, fosilak eta inguruaren kudeaketa jasangarria, besteak beste. Guztiari buruzko informazioa pantaila interaktibo batzuen bitartez jaso daiteke.

### Turismoa eta dibulgazioa

'Algorri' etxearen kudeaketa "Begi Bistan" eta "Arazi" etxeek eramango dute. Begi Bistan etxeko Jon Arratibelek dienez, "apustu berritzailea eskaintzen da 'Algorri'-n. "Arazi"-k ingurumen hezkuntza eskainiko du eta "Begi Bistan"-ek naturarekin erlazionatutako turismoa. Zumaia-ko eta beste herrietako ikasleei tailerrak eta laborategiak eskainiko dizkiegu eta biztanleriaren beste % 70 natur turismoa erakarri nahi da". Arratibelen esanetan, sentsibilitate desberdineko jendea dago: "Dagoeneko sentsibilizatuta dauden bikote gazteak, haurrak izanda naturan ibiltzea gustatzen zaien gurasoak, gizartearen beste arloetan lan egin eta mugikortasun arazoak dituzten elkarreetako kideak... Horiei guztiari beste mota bateko jarduerak antolatuko dizkiegu". "Begi Bistan"-eko ordezkariak aipatzen duenez, "Honelako jarduerak azkeneko bost urteotan egin ditugu, eta oso erantzun ona izan dute. Helburua inguru hau ezagutzen

Flyscha histori  
liburu erraldoi  
bat da.  
Liburuan orriak  
nola, gure  
itsasertzeko  
labarretan ere  
halaxe daude  
pilatuta ehunka  
harri xafla

ez duen jendea erakartzea da. Azpeitia, Zarautz edo beste leku ezagunagoetara joaten den jendea Zumaiara erakarri eta hemen dagoen ondarea ezagutarazi nahi diegu. 'Algorri' ikusteko eskaera ugari ditugu dagoeneko".

"Arazi" kooperatiba arduratuko da ingurumen hezkuntzaz. Batez ere dibulgazio, ikerketa eta kontserbazio lanez arduratuko direla dio kooperatibako kide den Juanjo Aranburuk. "Hitzaldiak, tailerrak, txangoak... Horrelako lanak egingo ditugu hemen", dio Juanjok. Zentroa sortu berria izanda, eskaintza oraindik ere froga moduan dagoela argitu digu, ordea: "Eskaintza herriaren ezaugarrien arabera prestatuko dugu eta bi lerrotan banatuko da: alde batetik, "Algorri" etxe bertako eskaintza; bestetik, herrian egingo diren beste lanak, argitalpenak eta erakusketak, adibidez."

Jesus Altunaren hitzak jaso ditugu hasieran eta berarekin amaituko dugu. 'Algorri' bisitatu ondoren, Aranzadiko kideak zera esan zuen: "Asko dago ikasteko, ezagutzeko eta gozatzeko" flyscharen eta naturaren inguruan. Ea hala den.



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1



- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturalista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

# Arkupe



Okindegia  
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

# Zorionak guri, zorionak guri...



kotasuna, anarkismo puntu hura galdu du eta orain askoz ere "profesionalagoa" da (honek dakarzkien gauza txar guztiekin), baina arduragabekeri toke horrek hor dirau. Eta jarrai dezala.

Autobonboa alde batera utzita, goazen mamira. Inazio Tolosa aurkitzen genuen 13. zenbakiko azalean. "Herriko artista bat" bezala bataiatzen zuen kazetariak. Tolok atzera begiratzen zuen eta antzerki munduan sartu zeneko garaiak gogoratzen zituen, baina baita urte hartan bertan estreinatzen zen "Izan ala..." antzezanari buruzko iritziak eman ere. Orotara, "antzerkia eta musika lotzeak satisfakzio handiak" ematen zizkiola zioen ile batzuk gehiago zituen Inaziok.

P.H.B.E. (Parrokiko Hontzei Eguzki Betaurrekoak) kolektiboko kide batek gutun bat bidali zuen eta hemen bai gustura argitaratu ere. Garai hartan foku indartsu batzuk jarri zituzten parrokiara begira eta bertako hontzak itsu gelditze-ko arriskuan ziren. Horretarako, zer hobea go eguzkitako betaurrekoak baino. Beharko zituzten, bai, betaurrekoak, argiak hor diraute eta.

Albiste ziren hilabete hartan araztegia (10 urteren ondoren martxan dago, baina ez %100ean), Forondan egin behar ziren aldaketa garrantzitsuak (bigarren solairuaren eraldaketa eta parke botanikoa) eta Aita Mari futbol zelaiko harmaila berria (ez zuen asko iraun).

Kirolen atalean, mountain bike-a zen hizpide. Horretarako, herriko bi gazterekin hitz egiten genuen, Andoitz Korta eta Sabin Aranarekin. Biek ziotenez, "mountain bike-aren sorrera zerbait logikoa izan da. Naturarekin kontaktu zuzenean lasaitasun osoz egoteko aukera emateaz gain, bizikleta honek mendian nahiz errepidean ibiltzeko posibilitatea ematen du". Ohiko atalak baziren zenbaki hartan, baina baita berrikuntzak ere, ipuin bat argitaratzen baizen. Idazlea "Lehorreko bat" zen eta ilargi berriko marea bizi batek itsasoko urak eramango bali-tu herrian zer gertatuko litzatekeen galdetzen zuen. Imajinatze hutsak hotzikarak sortzen ditu.



Hala zioen Baleikeren azalak 1995eko ekainean; izan ere, lehen urtebetetzea ospatzen zuen hilabete hartan aldizkariak. "Lehen alea inprimategira eraman genuenean ez dakit nola hango langileak ez ziren suizidatu: portadako montajea beraiek ez zuten programa batean egin genuen, txapuzta hutsa zen, publizitate guztia goitik behera aldatu behar zen, diskete batzuk falta ziren... Han etorri ginen Oñatitik falta ziren gauzen bila, izerdi larria gainetik kendu ezinik". Urteurrenari buruzko artikuluean lehen paragrafoa zen hau. Urte hauetan gauzak asko aldatu dira: sortzaileetako gehientsuenek orain dela asko utzi zuten aldizkaria eta jende berria sartu da; fres-

**AITA MARI**  
**KAFETEGIA**

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaira

parabidun kamioia baskulagaria  
garabiaz: 15m-11u.

**GARRAIOAK**  
Asensio Artetxe Iturbe

Tel.: 943 557 189 / 655 706 557  
Izurtari, 5/2A (Aumar) • Aitzpilgorta, 1614 (Mondrari)

**gofi**  
haur jantziak

Amaiaiko plaza z/g Tel. 943 860959

*Urtearen erdira iritsi garen honetan, Zumaiaiko Udaleko Euskara Zerbitzuak egoki iritzi dio EBPN garatzeko 2005eko kudeaketa plana zertan den herritarrei jakinarazteari.*

# EBPN : urte erdiko lanaren balantzea



ko. Udalak halaxe egiten du eta esan liteke, Aholku Batzordeak egindako proposamen guztiak jaso eta betetzen ari dela Udala aurten.

## Euskararen transmisioa:

Euskararen transmisioari dagokionez, herrian eragile garrantzitsuenetarikoa dira ikastetxeak, eta horiekin elkarlan estua dauka Udalak, elkarlan horretatik hainbat ekimen sortu dira:

Urtearen hasieran jolas ikastaroa eskaini zen herriko Ludotekan haur eta gurasoentzat. Ekimen arrakastatsua izan zen, eta parte hartzaileek oso balorazio positiboa egin zuten, bai ume eta bai guraso, denak oso pozik ibili ziren, gehienek balorazioa horrelako gehiago antolatu beharko lirakeela izan zen, eta Udalak hori kontuan hartuko du datorren urtera begira:

Beste hainbat ekimen ikastetxeetan bertan garatzen dira. Alde horretatik, aipagarria da ikasturte honetan lehenengo aldiz, Zumaiaiko ikastetxe guztietan burutu duten bertsolaritza lantzeko programa. Bertsozale Elkartearen elkarlanarekin egin da, eta horren kostuan udalak lagundu du, ikasturtearen amaieran, ikastetxe guztiek oso balorazio positiboa egin dute, eta beraz, datorren urtean proiektua are sakonago eta hedatuago lantzeko asmoa dago. Izan ere, ahozkotasanaren inguruko kezka bizi-bizirik dago irakasle eta hezitzaileen artean, besteak beste, hitanoaren erabile-

## EUSKARA ZERBITZUA

Urtearen hasieratik, udala herriko hainbat eragilerekin batera, euskara sustatzeko lanetan dabil eta 2005. urterako helburuak betetzen doaz poliki-poliki etenik gabe.

Lehenengo eta behin, Euskara Zerbitzuak eskerrak eman nahi dizkio Zumaiaiko Euskararen Aholku Batzordeari, bere lankidetzagatik. Euskararen Aholku Batzordea 2004. urte bukaeran sortu zen Euskara Batzordearen aholkulari lanak egiteko. Bere zeregin nagusia, herritarren kezka, iritziak, proposamenak eta ideiak biltzea da, gero ahal den neurrian, horiek guztiak normalkuntza planean txertatze-

**Rosi**  
garbiketak

- \* Etxeak eta dendak
- \* Enpresa eta auzo lanak
- \* Erroa garbiketeta eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670

**Galdona**  
  
burdindegia

Mendara marinela, 1      Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15      Faxa. 943 861330

English School  
**Harvest**

**Ingeleseko klaseak adin guztietan**  
San Jose, 11 bis      Tel. 943 143334



Bere zeregin nagusia, herritarren kezka, iritziak, proposamenak eta ideiak biltzea da, gero ahal den neurrian, horiek guztiak normalkuntza planean txertatzeko.

rari dagokionean, ikusi da alde batetik hika egiteko ohitura asko galdu dela, baina bestetik umeez, mutilez batez ere, badutela interesik gairik horretan, nahiz eta askotan ez duten behar bezala egiten erreferentziarik falta zaizkielako. Hori dela eta Euskara Zerbitzuak kezka horiei erantzuteko proiektu bat jarri ditu martxan.

Alde batetik, hitanoaren inguruko ikastaroa eskainiko zaie urrian irakasleei. Helburua, beraiek hitanoan trebatzea izango da, gero ikasleei irakatsi ahal izateko, horretarako baliabideak eta metodoak eskainiko dira dagoeneko hitzartuta dagoen ikastaroan. Bestalde, ildo beretik, lan talde bat

eratu da, Zumaiko ikastetxeetan hitanoa lantzeko saioak prestatzeko. Lan taldean irakasleak daude batetik, eta horiei laguntza emateko adituak bestetik. Lan saio horien bidez, batuko formak irakasteaz gain, Zumaiko formei ere lekua utzi nahi zaie, eta horretarako, Hitanoa Zumaian, Xabier Azkueren lanaz baliatuko dira. Lan taldea bi aldiz bildu da dagoeneko, eta une honetan proiektua etenda dagoen arren, udazkenean, berriro helduko zaio.

Transmisioaz ari garelarik, gurasoak ezin ditugu alde batera utzi, eta horiek kontuan hartuta beste ekintza batzuk pentsatu dira. AEK euskaltegiarekin elkarlanean gurasoak euskalduntzeko ikastaroa abian jarri zen ikasturte hasieran. Ikasle kopurua ez da handia izan, baina gustura ibili direnez, eta motibazioa altua zenez, udalak taldeari eustea erabaki zuen finantziarioan lagunduta. Gurasoen artean sensibilizazioa lantzeko asmoz, bestalde, udazkenean, ikasturtearen hasierarekin batera, Haur Hezkuntzako umeen gurasoentzat hitzaldiak daude hitzartuta Kike Amonarrezekin. Irakasleekin batera landu da azkeneko ekimen hau eta denek beharrezko jotzen zuten zutenez aurrera egitea erabaki da.

Eta alor honekin bukatzeko, Udal Elkartearekin batera lantzen ditugun beste ekimen batzuk daude. Alde batetik, etorkinen kolektiboa hartu dugu aintzat, eta azken urte honetan, gure herrira iritsi diren etorkin guztiei eta egunero iristen direnei, hiztegitxo bat banatzen die Udalak. Hiztegian eguneroko hitz errazak daude hainbat hizkuntzatan eta euskaraz. Helburua datozenei euskararen berri ematea da, hemengo berezko hizkuntza zein den jakin dezaten eta ikastera animatu daitezen. Eta bestetik, urtarilaz geroztik martxan daukagun on-line euskaltegi zerbitzua ere aipatzekoa da, euskara ikasi nahi dutenei beren etxetik edo herriko KZ gunetik egiteko aukera ematen dielako, eta beraz, euskara ikasteko prozesua asko errazten delako.

#### Euskararen erabilera:

Alor honetan, aurrean ahalegin handia egin da administrazioan, hau da Udal barnean. Horrela bost langile 4 Hizkuntza Eskakizuna lortzeko eskoletan ibili dira eta esan liteke emaitza onak erdietsi direla bost langiletik hiruk



- \* Eguneroko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379







lortu baitute 4. HE. Besteek ikastaroetan aurrera jarraituko dute hemendik aurrera ere. Horretaz gainera, uda osterako hitzartutako dago "Iturri onetik I." ikastaroa, nahi duten Udaleko langileentzat, Euskaltzaindiaren arauak ikasi eta idazten egiten diren ohiko akatsak zuzentzeko. Aisialdiarekin lotuta, eta ahozkotasuna bultzatzeko asmoz, San Telmotan Udalak euskal kanten liburuxka bat argitaratu zuen. Bertan tradizioko hainbat euskal kanta jasotzen ziren eta ahalegin berezia egin zen Zumaiaiko kantak jasotzeko. Liburuxkak harrera ezin hobia izan zuen herritarren artean eta jaietan talde bat

baino gehiago animatu ziren bertan bildutako kantuak abestera:

Herriari begira jarrita, euskararen erabilera sustatu eta euskal literaturara biltzeko literatur tailerra antolatu du aurten ere Zumaiaiko Udalak. Oraingoan, Edorta Jimenez idazle bizkaitarrak eman du ikastaroa, eta bai idazlea bera, eta bai ikastaroan parte hartu dutenak ere oso pozik ibili dira.

Euskararen erabileran, alor sozio-ekonomikoak duen garrantzia kontuan hartuta, aurten Zumaiaiko Udalak merkataritza euskalduntzeko plan bat jarri du martxan. Plana garatzeko Elhuyar aholkularitzaren laguntza izango du Udalak. Gai honen inguruan, azpimarratzekoa da merkatariek erakutsi duten interesa, beraiek izan baitira metodologia aukeratu dutenak eta hasiera-hasieratik proiektuan inplikatu direnak. Eragiten dion esparru zabala kontuan hartuta eta ahalegin ekonomikoari dagokionez, hauxe da Euskara Zerbitzuaren aurtengo egitasmorik garrantzitsuena.

Merkataritzaz gainera, enpresa munduan ere asko dago egiteko. Horri heldu nahirik Urola Kostako Udal Elkarte programa zabal bat garatzen du, Lanera! egitasmoa. Finantziario arazoak tarteko, programa honetan geldiduna izan da, baina orain berriro ekin zaio enpresetan euskara planak garatzeari.

Zumaian, azpimarratzekoa da kirol arloak duen garrantzia, kirol klubuen ugaritasuna eta herrian dagoen kirolari kopurua. Horrek guztiak kirol arloa, esparru estrategiko bilakatzeko du herrian. Horretaz jabetuta, Euskararen Aholku Batzordeak ideia bikaina izan zuen; herrian kirola eta euskara uztartzeko ekimen bat egitea. Udalak Aholku Batzordearen proposamena jaso eta bere egin du, eta ekainaren 18rako jaialdi handi bat antolatzen ari da "Euskaraz, kiroltasunez" lelopean. Horren bidez, herriko kirol klubetan euskararen alde egiten duten guztia eskertu nahi zaie eta bide horretatik jarraitzeko animoak eman ere bai. Aurtengo kudeaketa planeko proiekturik garrantzitsuenetakoa bilakatu den hau Udaleko Euskara eta Kirol zerbitzuek eta Zumaiaiko Kirol Klubek elkarlanean garatuko dute. Benetan eskertzekoa da, herriko klubek erakutsi duten inplikazioa eta lanerako gogoia.

Arlo honen inguruan ezin aipatu gabe utzi, Udal Elkarte-

**ekin**  
Zerbitzuak, S.L.

Bilbao Kalea 18 behe, 20750 Zumaia. Tel: 943 53 53 05 e-mail:ekin@euskalnet.net www.ekin.net

**Instalazio elektrikoak**  
**Telekomunikazioak**  
**Informatika**  
**Internet**

**DIGITAL + CANAL+**

**ongizan**  
fisioterapia zentroa  
igor agirre eta idoia uranga

Tel./Fax: 943 53 53 05 • e-mail ongizan@euskalnet.net  
Itzurun Zuhaitz-bidea 3-behea • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)



Enpresa munduan ere asko dago egiteko. Horri heldu nahirik Urola Kostako Udal Elkarteak programa zabal bat garatzen du, Lanera! egitasmoa.

rekin batera garatzen ari diren "Euskara Sasoian" kirol elkarteetan euskara normalizatzeko egitasmoa eta kirol begiraleak prestatzeko egiten diren ikastaroak ere. Horien bidez, kirolean euskararen presentzia areagotuz doa poliki-poliki, beraien jarduna gero eta gehiago egiten baita euskaraz.

#### Euskararen elikadura:

Aurten amaituko da, herriko toponimia jaso eta normalizatzeko beka. Azkue anaiak urtebete baino gehiago eman dute lan honetan, Euskaltzaindiko Mikel Gorrotxategi eta Patxi Galeren zuzendaritzapean. Euskaltzaindiko adituen ustez, lan bikaina egin dute eta Euskara Zerbitzuak urtea amaitu baino lehen, toponimo garran-

tzitsuenak jasotzen dituen herriko mapa bat argitaratzeko asmoa du.

Bukatzeko, beste kanpaina baten berri; Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzuak herritarren izen-abizenak euskal grafia-  
ra egokitzeko kanpaina egin du hiru hilabetez, Euskararen Aholku Batzordearen ekimenez hori ere. Kanpaina maiatzaren 3lan amaitu zen eta 50 herritar baino gehiago izan dira Udalera jo dutenak beraien izen-abizenak aldatzeko. Ezin ukatu beraz, kanpainak izan duen arrakasta, batez ere kontuan hartuta lehenago ere egin izan direla era horretako kanpainak. Hemendik aurrea izen-abizenak euskal grafia-  
ra egokitu nahi dituenak Bake Epaitegira jo beharko du.

#### Ondorioak

2005eko kudeaketa planaren erdira iritsita ondorio hauek atera ditu Euskara Zerbitzuak:

hasieran jarritako helburuen betetze maila handia da, eta urtearen bukaerarako helburuak osotasunean betetzea aurreikusten da. Are gehiago, urte hasieran aurreikusten ez ziren, eta ondorioz 2005eko kudeaketa planean jaso ez ziren ekimen batzuk ere burutu dira.

Ekintzen balorazioa egiterakoan, batenaz beste balorazioa oso positiboa izan da, gehienak oso arrakastatsuak izan baitira. Hala ere, proiektu batzuekin zailtasunak egon dira eta daude, hitanoaren inguruko lan saioak sortzeko proiektuan esaterako, baina urte amaiera baino lehen zailtasunok gainditu eta egitasmoan aurrera egiteko asmo sendoa dago. Bestalde, izan da huts egin duen proiekturik ere. Maiatzean hastekoa zen gazte hizkerari buruzko tailerra bertan behera utzi behar izan da, ez delako nahikoa lagun apuntatu. Hala ere, Euskara Zerbitzua ikastetxearekin batera, interes falta horren arrazoiak aztertzen ari da eta ez da baztertzen udazkenean tailerra martxan jartzeko beste saiaker bat egitea.

Oraindik asko dago egiteko, horren jakitun gaude, baina orain arte egindakoaren emaitzak ikusita, aurrera jarraitzeko gogoia ez da falta. Beraz, Zumaiako Udalak eskerrak eman nahi dizkie, Zumaian euskara sustatzen parte hartzen duten eragile eta herritar guztiei. Denon artean lortuko dugu.

INMOBILIARIA

**Amaia**

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

**D'Ana**  
Steapaindegia

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

**EKO**  
URRATS

INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN  
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel./Fax: 943 143 102 - Juan Belnorne, 2 bajo - 20750 ZUMAIA

Juan Ramon Llavori argazkilaria



*Juan Ramon Llavori, argazki erreportajeak egiten aritzen da. Hainbat sari jaso, urtero egiten ditu atzerrira bidaiak. Bere kamerekin gugandik hain urrun dauden herrien irudiak lortu ditu.*

**“Errealitatearekin izandako topaketa hau oso kez-kagarria izan da niretzat”**

**MAITANE AGIRRE**

Orain dela hilabete gutxi "Medicus Mundi" erakundearekin ibili da India eta Mumbai inguruan argazki erreportaje egiten. Berarekin hitz egin dugu bidaia horri eta argazkigintzari buruz.

**Noiz hasi zinen argazkigintzan?**

1994. urtean hasi nintzen argazkigintzan. Autodidakta naiz.

**Nola hasi zinen edo zerk bultzatu zintuen?**

Hasieran, argazki rallyetan hartzen nuen parte, besteek utziriko ekipoekin, nire lagunak (Josu eta Txolo) eta Luis eta Jose Mari anaiak nazkatu nituen arte. Orduan, ekipo berria erostera "behartu" ninduten. Nire bi anaiak erreferentzia izan dira beti.

**Erreportaje asko egin dituzu. Zein izan da zuretzat pertsonalki gustukoena edo zein argazki erreportajerekin lortu duzu emaitzarik bikainena?**

Erreportaje guztiak oso garrantzitsuak izan dira niretzat,



## “Erreportajearen helburua proiektua gauzatzen ari den lekuan gizakiak bizi duen egoera islatzea zen”

baina pozik handiena sorrarazi didana 2000. urtean Ladakhen (Indian) egindakoa izan zen. Horren emaitza bezala ‘Jule Ladakh’ liburua argitaratu nuen.

**Azken erreportaje hau egiteko “Medicus Mundi” erakundearekin ibili zara India inguruan. Kontatuko al diguzu zehazki zein ingurutan ibili zaren?**

Azken erreportaje hau aurten egin dut, Gipuzkoako “Medicus Mundi” taldeari laguntzen. Beraien proiektuak bisitatzeko egon naiz Mumbain, Gujarateko estatuan eta Kanyakumarin, Indian, azkeneko tsumaniak kaltetutako lekuan.

**Nondik sortu zen gobernuaren kanpoko erakunde honekin lan egiteko ideia?**

“Medicus Mundi” taldearekin lan egiteko ideia sortu zen Indiako tsumaniak sortu zidan kezka zela eta, nire lanari ahal zen neurrian balio sozial handiagoa emateko asmoz. Seguru asko, lanari ekitean helburu batzuk jarriko zenituen... Bete al dituzu? Erreportajearen helburua, gehienbat, proiektua gauzatzen ari den lekuan gizakiak bizi duen egoera soziala islatzea zen. Txabolak dauden zonaldean (Slums), Mumbain, Gujarat estatuan adiwasis etniarekin egon ginen. Estatu horretan bertan, Junagaden, legenardunen ospitale bat ere bisitatu genuen. Ondoren, Tamil Nadun egon ginen, Kanyakumarin, hondamendi naturalaren ondoren egindako berreraiketa ikusteko. Nik uste helburu guztiak bete direla, baina lanaren emaitzak gero

ikusi beharko ditugu, etorkizunean.

**Ikusi dituzun leku guztietatik, zein izan da gehien gustatu zaizuna?**

Ni ez naiz joan zehazki leku bat bisitatzera, bertako jendearekin egotera baizik, beraien sentsazioak aztertu eta estimatzera.

Asmo horiek kontuan hartuz, jada ahaztuko ez zaidan oroitzapena daukat adiwasi eta Mumbaiko txaboletan bizitakoaren inguruan, baita bertakoekin lanean diharduten pertsona guztiena ere.

**Horrelako jendearekin lan egiteak nolako sentsazioak sorrarazi dizkizu?**

Sentimendu kontrajarriak dira. Batzuetan pozgarriak. Beste batzuetan tristura sentitzen da bertakoak zein egoeratan bizi diren ikusita. Ondo egingo genuke gure zilborrari begiratzeari utzi eta ezagutza gehiago izango bagenu ezer eduki ez eta, hala eta guztiz ere, beraien irribarrerik ederrena oparitzen dizuten pertsona horien guztien inguruan. Baina min asko dago.

**Nolako egoeran bizi dira Mumbaian txaboletan bizi direnak eta tsunamiaren ondorioz ezer gabe geratu diren indiarak?**

Bizi duten egoeraren ondorioz, egunean egunekoa bizitzea da geratzen zaien bizi filosofia bakarra. Edozein arrazoi, txikia izan arren, pozik egoteko arrazoiak da beraiantzat. Baina beraien bizitzetan dagoen fatalismoa eta hori onartzeko duten moduak kezkatu egiten nau.

**Hedabideek erakutsi al dute benetan tsunamiak utzi dituen ondorioak?**

Hedabide guztiak egoera hauen aurrean onura lortzeaz bakarrik arduratzen dira; nolabait esateko, albistearen lehen

ALTZARIAK  
**OSTOLAZA**  
AROSZTEGIA



Mota guztietako altzariak eta arosztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325



Julio Beobide 3, tfn. 943 019 869



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



inpaktuaz baliatzen dira. Gerora, ordea, egoera horrek ez duenez "saltzen" ahaztu edo alboratu egiten da. Baina inoiz ez du hartuko (guk hartzen ez dugun bezalaxe) tragediaren benetako tamaina. Tragediaren inguruko kontzientzia denbora pasa ondoren hartzen da. Orduan, ordea, ez dago albisterik eta errealitatea ahaztu egiten da.

**Bidaia honetan ikusitako zerk harritu zaitu gehien?**

Kaltetuak laguntza jasotzeko orduan jartzen dituzten zailtasunak. Gai dira beraien baldintza propioak ipintzeko, eta baldintza horiek lortzea ezinezkoa denez, egoera zegoena baino okerragoa bihurtzen da. Adibidez: "Nahiago dugu dirua jaso eta horrekin nahi duguna egin, arrantzarako sare, barku eta horrelakoak jaso baino". Zorionez egoera hau ez da orokorra.

**Zer izan da ikusi duzun gauzarik gogorrena eta pozgarriena?**

Gogorrena, agian, txaboletan bizi duten egoera. Baita tsunamiaren ondorioz etxea galdu duten pertsonak dituzten bizi baldintzak ere. Tejabana batzuen azpian bizi dira eta temperatura horiek jasaten. Ederrena zera izan da, ni ikustean beldurtu eta negarez hasi zen ume baten malkoak, ondoren ni onartu eta besarkada nola bihurtu ziren ikustea.

**Hitz gutxitan nola definituko zenuke bidaia hau?**

Ez dut uste kamera batekin itzuliko nintzatekeenik, objektibo baten bidez "ikusteko" bertan gertatzen dena. Kamera gabe itzuliko nintzateke lanera.

**Zer izan da zuretzat bidaia hau modu profesional eta pertsonalean?**



**MENDI - ONDO C.B.**  
ELEKTRIZITATEA  
Urola Plaza, 21  
Tel. 943860074 - 943861569



**ARGIA**  
ARROPADENDA  
Itzurun, 1 Tel. 943 143224



**METRO**  
taberna  
ogitartekoak  
pintxoak  
Upela plaza, 7  
tel: 943 862620



*“Bizi duten egoeraren ondorioz, egunean egunekoa bizitzea da geratzen zaien bizi filosofia bakarra”*

Hurrengo erreportajea ziur aski agertuko da argazki hori. Inoiz ez da jakiten zein izango den. Egia dena da batzuetan argazki asko bidean galtzen direla hainbat arrazoiren ondorioz.

**Argazkilaritzatik bizitzerik ba al dago?**

Ni ez naiz argazkilaria profesionala. Baina argazkilaritzak liluratzen nau. Niretzat, errealtatearekin izandako topaketa izan da. Izan ere, lehenago egin izan ditudan bidaia nolakait esateko "mistikoak" izan dira. Errealtatearekin izandako topaketa hau oso kezagarria izan da niretzat.

**Zer aholku emango zenioke zure bideari jarraitu nahi dion norbaiti?**

Aholkuek ez dute ezertarako balio, soilik ekipaia lagun bezala. Gizakiak liluratzen bazaitu, zeure burua aurkituko duzu, zeure jatorriekin egindako topaketa izango da.

**Bidaia honetan egin duzun argazki erreportajearekin erakusketarik egiteko asmorik ba al duzu?**

Horixe da, hain zuzen, bidaia honen helburuetako bat; hau da, erakusketak, proiektzioak eta hitzaldiak antolatzea "Medicus Mundi" erakundeari laguntzeko. Babesle bat aurkitzen badugu, erreportajea argitaratzea ere nahi dugu (norbait animatzen bada, badaki!).

**Zertan oinarritzen zara argazkiak egiterakoan?**

Pertsonen ezagupen eta famili giroan, beraien konplizitatea aurkitzen saiatzen naiz, "feeling", naturaltasuna eta berezitasuna aurkitzea ezinbestekoa da horrelako lanetan.

**Zein argazki gustatuko litzaizuke egitea oraindik egin ez duzuna?**

Pentsatzen eta sentitzen dudaren arabera, gaur egun ziur aski ez eta segurtasun osoarekin diot. Mundu honetan izen bat dutenak bizi daitezke argazkitik eta ni ez naiz horietako bat. Ez eta nahi ere.

**Badakigu sari batzuk irabazi dituzula. Zehazki zenbat?**

Horretarako orri gehiago beharko genituzke, baina azken saria dut maiteena. Gipuzkoako Nazioarteko FIAPeKo (Federación Internacional de Artistas Fotógrafos) sariketako urrezko domina. Horrez gain, 2000 eta 2004. urteetan Cerdanyola del Vallesen (Katalunian) ospaturiko Bienal Internazionalako zilarrezko Aquaductsak.

**Zer dakar irabazi duzun azken sariak?**

Poztasun handia. Pertsonalki, ez du ezer gehiago esan nahi, ez baita ezer aldatuko. Nik gozatzen jarraituko dut makina "klikatzen" dudan momentu horietaz.

**Argazki erreportajeak egiten jarraitzeko asmorik ba al duzu?**

Bai, Indira itzuliko naiz. Ziur aski lehenengo Marokora eta Kubara joango naiz edo Donejakue bidea egitera. Lehenago, ordea, Frantziara joango naiz, Lescarera, (Pautik gertu dagoen hirira). Erakusketa bat dut ekainaren 20an, "La Tierra de los pasos perdidos" izenekoa. Erreportaje hau 2004an egin nuen Spiti Valleyn, Himalayan.

**EGOKI**



*Erloju  
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

**BEDUA  
ITURGINTZA S.L.**  
ANTONIO AZPILLAGA



**-KALEFAKZIOA  
-ZORU BERO-EMALEA  
-GAS INSTALAZIOA  
-GAS NATURALA  
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
Tel. 943 14 33 69

## buztina terapeutika naturalean

**G**oiterapia, buztina erabiliaz sendatzean datzan terapia, oso estimatua izan da historian zehar; egiptiarrek hildakoen momifikazioan erabiltzen zuten, grekoek minak eta hausturak sendatzeko...Gaur egun, bere ahalmen kontaezinak ezagutu-ta, osasuna hobetzeko ezinbesteko teknika gisa erabil dezakegu.

Buztinen konposaketa aldakorra bada ere, gorputzak behar dituen elementu kimiko nagusiak izan ohi ditu: batez ere silizea, burdina, kaltzioa, magnesioa, potasioa... Silizeak jokatzen du paper nagusia ahalmen sendatzailean: silizea ezinbestekoa da hezur, ehun eta giharren eraketa eta mantenuan.

Buztinak ahalmen desintoxikatzaile, xurgatzaile, orbaintzaile, desinflamatorio, lasaigarriak eta bakterioen aurkakoak ditu, eta oso era egokian erabil daiteke hainbat gaitz eta gaixotasunerako.

Oro har, buztina hautsean aurki dezakegu; ez da oso gomendagarria norberak jasotzea, kutsatua egoteko arrisku handia baitago, eta betiere, sakontasun handikoa behar du izan. Buztin mota ezberdinak aurki ditzakegu, jaso den lekua- ren arabera. Kolorea bere konposizioaren arabera da, eta erabilera ezberdinak izango ditu.

-Buztin zuria: barnerako hartzeko erabiltzen da, urarekin edo landareen infusioekin nahastua, digestio aparatuko hainbat gaitzarako: gai toxikoak xurgatzen ditu, beherakoa moztu du, ultzerak sendatzen ditu...

-Buztin arrosa: zuria eta gorriaren nahasketa.

-Buztin grisa: konposaketan ikatza duelako du kolore hau eta toxikoa izan daiteke barnerako hartzeko. Ez da oso erabilia.



IzagaGarcia  
Dietista eta  
iridologoa

-Buztin orlegia: gai mineral gehien dituen. Oso gomendagarria kolpeak, hanturak, hausturak, erredurak eta zauriak sendatzeko.

-Buztin gorria: burdin asko du. Batez ere bainuan erabilia, lasaigarritzat eta azaleko gaitzak sendatzeko.

-Buztin horia: azaleko gaitzentzat.

### Erabilera

-Enplastuak: kristal, portzelana, egur edo buztinezko ontzi batean (inoiz ez metal edo plastikozkoa), buztin orlegi edo gorri hauts mendixka bat jarri, eta gutxika klororik gabeko ur hotz, epel edo beroa erantsi (behar dugun eraginaren arabera, landare-urak edo esentziak erantsi diezazkiokegu). Buztinak ura xurgatzean, egurrezko koilara batekin nahastu, pasta bat lortu arte. Behar den lekuan 2 zentimetroko kapa jarri, kotoizko zapi batez estali eta gainetik bero mantentzeko beste zapi bat. Lehortu artean mantendu (2-3 ordu) edo kasu batzuetan gau guztia.

Batez ere hausturak, kolpeak, zaintiratuak e.a sendatzeko, artritis eta erreumarako, gaiztotutako granoak, eltxoen ziztadak, eztarriko minak, bronkitisa, almorranak eta aknea...

-Bilketak: buztin hautsa ur edo landare infusio batekin nahastu, urtsua gera dadin. Bertan zapiak edo bendak busti eta beharrezko lekuan jarri. Barizeak, zelulitisa, ekzemak, e.a. sendatzeko.

-Bainuak: urari buztin gorri edo orlegia erantsi, (g.g.b. 9 koilarakada bainera erdirako). Gorputz guztia edo beharrezko zatia sartu. Bizkarreko mina hobetzeko, ekzemak eta psoriasis sendatzeko, lasaigarri eta bermineralizatzaile bezala...

-Hautsean: zuzenean buztin hautsa erabil daiteke, zauriak sendatzeko, hortzak garbitzeko, oin eta besapeetan talkoa balitz bezala, haurren ipurdiko gorriturentzat...



Mota  
guztietako  
altzariak

Xanti Osa

Amia plaza, 7  
tailerra: 943 860914  
denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santxo auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



# euskaraz, kiroltasunez euskara eta kirola bat eginda

Kirola eta euskara, euskara eta kirola uztartzeko jaialdia antolatu du ekainaren 18rako Euskara Batzordeak. Goizeko 10etan hasi eta lau ordu luzetan herriko hainbat lekutan kirola euskaraz egiteko aukera izango da.

Denok dakigu zer nolako presentzia handia duen kirolak gure herrian. Taldeka edo bakarka, hainbat haur, gazte eta helduk egiten dute kirola Zumaian. Kirol munduan, batzuetan besteetan baino gehiago, gaztelanarako joera handia dago, ordea. Euskara eta kirola lotu nahian ari da Euskara Batzordea. Helburu hori lortzeko, lehen pausoa hilaren 18an, larunbatean, egingo den jaialdia izango da. Euskaraz, kiroltasunez lelopean izango da festa eta horren bitartez herriko kirol taldeak animatu nahi dituzte, euskaraz jardun dezaten.

Esan bezala, goizeko 10etan hasi eta eguerdiko ordu biak bitartean, herriko hainbat tokitan kirola egin ahal izango da: futbola, saskibaloia, txirrindularitza eta abar. Egunari hasiera emateko, Joseba Ossak jaialdirako bereziki prestatutako manifestu bat irakurriko da. Girotze lanetan bertso-

lari eta trikitalariak arituko dira. Jardunaldien egutegia aldamenean duzue, eta Euskara Batzordetik diotenez, denek izango dute kirola egiteko aukera, kirol mota denetan, eta kirola euskaraz egitera animatu nahi dituzte zumaiarrak.

## Beheko Plazan

10:00-10:45 Futbola.

10:45-11:30 Eskubaloia

12:00-13:30 Herri Kirolak

## Frontoi txikian

10:00-12:00 Saskibaloia

10:00-12:00 Eskalada

12:00-13:30 Txirrindularitza

## Odietan

10:00-12:00 Pilota, pala, xistera, xare

## Ibaian

10:00-10:45 Surfa,

10:45-11:30 Piraguismoa

11:30-12:15 Arrantza

12:15-13:30 Arraunketa

11:00-13:00 Bela

## Erribera kalean

12:00-13:00 Duatloia

## EUSKARAZ, KIROLTASUNEZ

Ez gera oraindik azken txanpara iritsi, ez degu mendi gailurra egin, ez gera helmugara ailegatu, ez degu partida irabazi, ez degu harririk astunena altxatu, ez diogu sokari nahikoa tira egin, ez degu lupiarik ederrena harrapatu, saskibaloia partida honetan hiruko asko ditugu sartzeko oraindik, ez gera, ez, olatuaren gailurrera iritsi, asko dugu egiteko oraindik euskara lehen mailan ikusi aurretik.

## Horregatik guztiagatik...

Arraunean segi behar dugu, euskara gehiago erabiliz. Mendian gora bidea egiten jarraitu behar degu, euskarari utsiz. Korrika, pedal kolpetan eta igerian segi behar degu, gogoz eta antsiz. Harri asko leporatu beharko ditugu, euskara dotoretu eta ondo jantziz. Euskararen partida oraindik amaitu gabe dagoenez, jokatu eta jolas dezagun garbi, tantoak pilatuz, eta goiari utsiz. Soka askori tira egiten jarraitu behar degu, ez dezagun etsi. Gol gehiegi jaso ditugunez, geure atea zaindu, eta gol gehiago egin, arerierekiko errespetuz, kiroltasunez, baina kemenik galdu gabe, euskararen arerierik handienak geu izan gaitzkeela kontuan izanik, hizkuntza ez baita hiltzen besteak ikasi ez izanagatik, norberak erabiltzeari uzteagatik baizik.



## "Razionamentuakin nahiko larri ibili gitxuan. Baserriren batera jun eta ixkutuan patata zakuren bat ekartzen bahuan, gustora."

ABELIN LINAZISORO

### Faxistek Bilbo hartu zutenean, zuek non zineten?

Bilbon. Gure taldia Abando tenientena huan. Hura huan gure jefia. Jun gitxuan harena eta esan ziun: Mirad! Ha venido una orden secreta. Nuestro grupo tiene que quedarse aquí en el ayuntamiento hasta que lleguen las tropas franquistas. Nosotros tenemos que entregar el ayuntamiento. Aiuntamentuan geatu gitxuan. Han bertan lo ein ginien. Hurrengo goizian ofizial frankista bat etorri huan eta builaka eta zarataka galdetu zian: ¿Quienes son esos?! Los que han estado de guardia por la noche, beste batek. Ah! Bueno! ¡Que se presenten en sus cuarteles! Gu entregatu eta Deustura bialduak izan gitxuan. Deustun, estos son los que han estado cuidando el ayuntamiento. Han balore haundixa zeoan, ba, eta hura zaitu ein behar huan. Ah, bueno, Deustukoak. Ahora se van ha pedir avales a los pueblos y a ver qué mandan. Herrietara informazixua eskatzen zien bakoitzaren fitxa jakiteko. Gero erabakitzen zien zer ein. Trabajadorietara, kartzelara... Bilbon prisionero hartutako danak Deustura eramanak izan gitxuan. Han auditore bat jarri zien kondukta herrixetara eskatzeko. Nire andria alkatierna jun huan paper bila eta honek esan zioan: Guk ezin degu ukatu zure gizona nazionalista dala eta horrelakorik! Eta nere andre honek: Aizu, handik honea bialdu naunak badaki hori. Hori ez du jakin nahi hark. Hamen, herrixan, zer ein duten jakin nahi dute. Orduan alkatiak:

Nacionalista voluntario. Hechos: Nada, jarri omen zian. Baina alkate honek laguntzaile bat zian eta honei ematen zizkioan kartak buzoira botatzeko. Eta honek zer eiten zian? Karta hauek Fuerzas Vivas-koei eman. Hauek ikusi eta beaixek nahi zutena eskribitu. Jun da nire andria eta auditore honek: Oiga, su marido tiene muy mala ficha. Eta andriak: No puede ser, el ayuntamiento ha puesto esto y esto. Eta hark: No, no. Aquí no pone nada de eso. Baina zer Kristo! Jun dek kabreatuta nire andria batenbatena. Hau

*"Gerra non zeon, han ibili ittuan. Kristonak pasatu zitien. Francon tropentzat lanak eiten. Kartzelatik atera eta zuloak eta luakixak eiten. Izotzetan lo eiten omen zien... Oso gaxki."*

akordatuta zeoan eta esan zioan: Begira, hau eta hau pasatzen da. Bi karta ailegatzen dia, bat aintamentuena eta hori ondo ailegatzen da, eta gero beste bat fitxa txarra jarrita. Zeinek eiten du, ba, beste karta hori?, andriak. Eta honek erantzun omen zioan: Hor batzuek daude beaixek nahi dutena eiten. Hoixek bialtzen dute beste karta

bat, baina autoridadia aiuntamentua da eta haren izenean jun behar du kartak. Nire andre hau jun da aiuntamentua eta jakinazi zian zer pasatzen ari zan. Eta aiuntamentuak hauei, kontuz!, esan omen zioan. Egun haixetan, gainera, aiuntamentuak Bilbora gizon bat bialdu zian, rekete jantzita, bere txapel eta guzti, esatera zer pasatzen zan: Esta es la verdadera, la del ayuntamiento, y esta la que suelen mandar los otros. Eta Bilbokoak: Si, ya nos habíamos dado cuenta. Hay mucho malquerer en los pueblos. Hay un embrollo! El papel de conducta lo mismo te viene del ayuntamiento, del párroco o de los requetés. Y esto pasa en todos los lados. Gero Bilbon nei esan zian: Usted no tiene mala conducta. Voluntario nacionalista, si, pero con buena conducta. Ahora tenemos que ver a donde le enviamos: Al monte, a la guerra, a los trabajadores, a la cárcel o le damos un castigo x. Hontan bagatxibek eta hamen dek gizon bat beste militar batekin. Auditoreak: ¿Qué pasa? Eta hauek: Nos hace falta gente. Hay miles de coches y nos hacen falta mecánicos para arreglar coches, para Sevilla, Cadiz... un montón de sitios. Ni dana aitzen eta Benitonian aldamenian. Besteak segi zian: Nos hacen falta ajustadores, colchoneiros, los que saben reparar cubiertas... Eta nik: Presente! Eta Benitok: Baina, hik zer esan behar dixuek? Eta nik: Hik lagaiaik nei, ezetza aurretik badiagu-eta. Lokal hartan zortzi-hamar bat gizon bazibeztian eta batek nei: ¿Usted qué sabe hacer? Eta nik: Yo era moldeador y fundidor. Arreglábamos camisas, pis-

tones, culatas... Eso! Eso! Hark. Nire lana ez huan hori, fundizixuan pieza haundixo eiten dittuk-eta, baina hoixek ere bagitxikien eiten. Haixek gustora: Eso! Eso! Luix Txikixa etorri zikak eta: Manuel, ez adi jun hoixen tartera. Aldegin ezak hortikan! Ez! Nik jun ein behar diat, esan nitxuan. El día tal a Sevilla, haixek. Joe! Nik Sevilla aitu nunian gustora! Talde bat jun gitxuan, baina zumaiarra ni bakarrik, anaixa-eta han lagata. Nik haixei esan nitxuan: Puñetero hoixek beti nota txarrak bialtzen ari dittuk. Gaur hamen gatxaudek, baina bixar ez zekiat non eongo gean eta ni banatxiak. Oain destinua bazeukat. Eta haixek: Engañu bat izango dek Joxe Manuel! Kontuz! Igual dek -nik- banatxiak. Orduan hango injineru batek esan zian: Bien. Ahora para dos días a casa. Se despide usted de la familia y para tal día a tal hora aquí. Que allí tenemos mucho trabajo. Ez dek txarra!, nik. Zumaira juteko salbokonduktoa eman zien. Etorri nintzanean reketek arpegi okerra jartzen zien. Ni salbokonduktoakin eta haixek: Hi nola etorri haiz? Ni oain lanera natxiak. Destinua kin. Joe! Eerra suertia! -haixek- Ai, guriak jungo balia! Ai nirea jungo balitz lanera! Mendira jun behar dik-eta. Gu lanera eta beaixek gerrara. Benito eta hauek trabajadorietara era-

man eta kristonak ikusi zitien. Valentzia hartu bitartean, gerra non zeon, han ibili ittuau. Hotzakín ura izoztuta zute-la, hotzen hotzakín begiak ere ireki ez-nik... Benito, Mikel, Abeliño... Kristonak pasatu zitien. Francon tropentzat lanak eiten. Kartzelatik atera eta zuloak eta luakixak eiten. Izotzetan lo eiten omen zien... Oso gaxki. Gero, Valentzia hartu zutenian, han bertan kotxiak arreglatzen-eta hasi omen ittuau eta nagusi



orduan. Aberatsak etortzen omen zixkuen eta: Coge ese coche, llévalo a aquel garage y arrégalo. Diru asko ematen omen ziten eta diru harekin eerki ibiltzen omen ittuau.

**Benito. Haiek Valentzian. Zu Sevillan. Zenbat denbora eman zenuen hemen?**

Lau hilabete. Gero, Cadiza. Soldau

jantzita lanian. Eta ordua ailegatzan zian, kalera. Baina jantzian franja bat ginien danak igartzeko ez ginala soldau normalak. Zer ginan edozeinek igartzeko moduan. Cadizera ailegatu ginian, haixek hartu zien poza! Euskaldunak ondo ikusita gitxibeztian. Jantzi, jan, guardiak... Dana soldauak bezela. Diru pixkat ematen zien. Gitxi. Eta lanian arratsaldeko seirak arte. Egunero kalera ertentzen ginien gaueko 9-ak arte. Zinea ikusteko lain. Han lortu nian andria hara eramatea. Lehendik bi donostiarrek andriak eraman zitien eta ni neure artian: Nire andria han zeok, ba, Zumaijan. Hai-xetako bati galdetu nitxuan: ¿Cómo has traído aquí a la mujer? Eta honek: Yo estaba en tal sitio y allí han pedido mujeres que supieran coser toldos y demás. Y mi mujer es costurera.

Beste donostiarrek ere jostuna zian andria. Nik, orduan, hango jefiari esan nitxuan: Tengo la mujer costurera y modista. Eta honek: Hombre! Estupendo! Gero, komandantiena jun nitxuan eta honek ameto. Horrela eraman nian andria hara.

Han, Cadizen, zumaiar bat, parientea gainera, barkuen ispektore zean. Hura han bertako langileekin ibiltzen huan eta haixek oso alperrak ziala esaten



**TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694**

**AROTEGIA**

**Urola 2000, s.l.**

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsiának
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA**  
**OPIL-OKINDEGIA**

zian. Hango jauntxoekin oso ondo konpontzen huan, alkatiakin, gobernadoreakin... Guk jaixetan libre izaten ginien, eta pariente bezela bere etxera juteko esaten zian. Baina egun batian amena-zoa bota zian: Nik aitzen badet zeozer ein dekela kalian, neuk afusilatuko diat! Nik: Zer egin? Kalera zinera juten naiz eta kito. Eta Hark: No, no. Por si acaso te digo, e? Eta ni gehixo jun ez. Jaixa etorri eta ni juten ez. Kuartelian ere txokatuta zibeztian. Nik banitxikian hura non ibiltzen zan eta ni beste aldetik ibiltzen nitxuan. Baina, kasualidadiak izaten ittuk, ba! Jai batian fuola huan, ikuster a jun nauk eta hantxe ikusi niñun. Zarpa bota zian: ¿Donde andas?, begiak malkotan. Por qué voy a molestar a nadie, nik. Aquí toda la gente apurada sin saber por donde andabas. ¿Te hemos hecho algo? Eta nik: Nada. Yo no tengo nada contra nadie. Eta Hark: Pues hoy mismo te vas ha casa, e?

### Zure andreak Cadizen norentzat egiten zuen lan?

Kuartel bertako. Lehenbizi tolduakin-eta. Gero, komandantiak jakin zunian modista zala, bere etxera lanera. Nik lagun bat kuartelian banian ezkontzekotan zeona eta hark eskaini zian habitazixo bat andrientzat. Después de trabajar salid a pasear y a la noche tú al cuartel y tu mujer a casa. Primeran.

### Zenbat denbora egin zuen zure andreak han?

Asko ez. Hura 39-ko eneruan ailegatu huan eta gerra bukatu arte. Octubre arte. Itxian komandantiak bere andrientzat eta semeentzat erropak josteko lana ematen zioan eta eskupekua ere ematen zioan. Kuartelentzako lana kuartelak pagatzen zian, baina beretzako lanak komandantiak aparte pagatzen zioan. Jornala ez, baina zeozer. Ixkutan. Eta pezeta batzuek ein ginixkien. Guk, berriz, kuartelian fundizixuan sei bat lagun gitxuan eta aleman bat gitxikan jefe. Gaiztuo huan! Inpernuko deabrua baino gaiztoago! Baina gure beharra zian. Aleman hoixek sail danak betetzen zitien. Hamen ez dek ezer eongo, esan, eta, efetibamente, behar zuena kanpotik ekarri behar. Haixek tekniko onak ittuan eta behar zituen pistoiak, espezialak eta haundixak, urrutitik ekarri behar izaten zien. Baina

**“Beretzako lanak komandantiak aparte pagatzen zioan. Jornala ez, baina zeozer. Ixkutan. Eta pezeta batzuek ein ginixkien”**

beste aleman bat ere bazeoan, injenerua, gaztia, berak aukeratu zitian moldeadoriak: ¿Tú que sabes hacer? ¿Cuanto tiempo llevas trabajando? Tú conmigo. Tú tambien. Pistoi espezial haixek galtzairuzkoak ittuan, baina gorra ez, flesibliak. Eta haixek goritzeko edozein ikatzek ez zian balixo.

Hainbeste kaloria behar zian ikatzak. Nik ere ez nitxikian hura. Fundizixorako bi klase ikatz bakarrik ziala uste nian. Aleman hark lau klase ikatz ziala erakutsi zigun. Injineru hau beti paisanoz jantzitzen huan. Cadizen ez zeoan behar zun ikatza eta ez zekiat nondik ekartzen zuan. Para mañana vendrá, hark. Uda huan. Beroa. Eta gu hara lanera. Auskalo zenbat gradutan eiten giñun lana. Denbora gutxikoa



Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak**

**ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



izaten huan, baina lehertu arte eiten giñien, haixek funditu arte. Lehertu. Errebentatu, e! Hura kixkaltzen ari zala han aldamenian eon ein behar zan! Egun batian ahitu zaigu ikatza. Beste ikatza baginien, baina hura erretzia alperrikakoa huan. Fundizixoko burnixak puskatu eta lanak ezertarako ez



*“Gure Felix Cadizen enkargatu ginien eta Zumaixan jaixo.”*

zian balixoko-eta. Dana txatarra bihurtuko huan. Eta guk lanik ez ginien ein. Beste aleman kontraxo hau komandantienna jun dek eta: Los fundidores no quieren trabajar y han ido al cuartel. ¡Como que no quieren trabajar! -komandantiak- ¡Que esa cuadrilla venga inmediatamente aquí! Jun gaittuk eta komandantiak: ¡Como castigo hoy vais a dormir en los talleres! ¡Mañana veremos qué hacer! Ordurako guk gabez errebajia ginien eta andrienea juten gitxuan lotara. Gabez gu falta eta emakume danak afaxakin gurena etorri ittuan: Zer pasatzen da? Danak bildurtuta. Eta, kasualidadia, egun hartan injineru aleman hau kanpoan huan eta orduantxe ein zian buelta. Esplikatu ein gitxuan zer pasatzen zan. Nik andriak ohera bialdu nixkian eta injinerua komandantienna jun huan. Andriak etxera ailegatu eitia bes-

terik ez zien ein eta aleman hau gurena: ¡Eh! ¡A dormir a casa! Esta gentuza no sabe nada. Se creen que son algo y... Le he dicho al comandante que si llegais a trabajar sería la ruina para todos. Eta beste alemanak gure kontrako amorrua zian! Entxufatu, puñetero, bat huan. Gau hartan ez huan azaldu ere ein. Tekniko alemanak komandantiari esplikatu, honek barkazixua eta guzti eskatu zioan, eta, gu etxera.

**Amaitzeko. Zuek gerra bukatu zenean itzuli zineten Zumaiara. Zuen seme zaharrena noiz jaio zen, ba?**  
Gure Felix Cadizen enkargatu ginien eta Zumaixan jaixo.

**Zumaian lan kontuekin-eta nola ibili zinen?**

Lan bila. Karmelo Unanuena jun eta hark: De momento no tenemos traba-

jo. Tú has trabajado antes aquí, pero... Eta nik: Toda la vida he trabajado aquí. Nikolaxekin ein nian topo kalian eta hark: Joino! Hamen al haiz! -Eta eskua eman zian- Gure Joxekutx oaindik han dek. Joxekutx Albizu kartzelien huan. Puerto de Santa Marian. Balentziaganean hasi nitxuan lanian. Handik Apes-tegineko fundizixura eta handik, Bereziartuak deitu eta Autonifer izena zun fundizixura. Diru gehixo ematen zian eta etxetik bertatik bertara. Askoz hobeto.

**Beste konturik?**

Razionamentuakin nahiko larri ibili gitxuan. Baserriren batera juten bahintzan eta ixkutuan patata zakuren bat ekartzen bahuan, gustora. Ez zien lagatzen, ba, Zubi Txikitik sartzen, eta estraperluan mendiz ixkutuan ibili behar. Razionamentua bukatu zanian, ba, hobeto.

*Arpaia*  
Zaldua

Erribero Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

**STIOM**  
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

**Aita Mari 3.blokea**  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

# uda hontan m uusia freskoa: kamon behibi

HAIZE GALARRAGA


Aspaldiko partez badugu rokanrol talde bat zumaian. Bazen garaia, azkenaldian gure inguruetan dabilen punk eta metalaren artetik rock suizida (beraien hitzetan) zumaiarra berpizteko taldea jaio da. Zein aproposago proiektu hau aurrera eramateko Pi baino? Zumaian musika munduan ibili den orok ezagutzen du Pi eta rokanrol izarra izateko jaio dela esan daiteke. Gitarra bat hartu eta mikroaren aurrean hankak zabal-zabal egin da jartzean igartzen zaio mundu honetan duen eskarmentua. Esperimentzia handiko mutila bera, Jaque al Rey eta The Pack taldeetan ibili da. Azken honetan euskaraz abesten zuen hizkuntza ezagutu gabe letrak buruz ikasi eta toke pertsonal bat emanaz. Badirudi oraingoan Pik zer-bait gehiago badakiela eta letra batzuk konposatu dituela euskaraz.

Kamon Behibiko baxua Egoitz Maiak hartu du. Hau ere aspaldiko ezaguna da Zumaiako rock mugimenduan Frishbistuff eta Pribatu Shock taldeetan gitarra jo baitzuen.

Azken talde horrekin Zumaian inoiz egin den kontzertu gogoangarriena-ko bat eman zuten Guaskor ondoko zabalgunean La Polla eta Ktulu-rekin batera. Kontzertu hura gogoratzean oilo ipurdia jartzen zaigu oraindik... batzuei behintzat.

Taldeko gazteena Bonbi da. Hau Itaka-rekin ibili zen eta orain hor dabil Kamon Behibi-ko bateria egurtzen. Beste biekin alderatuta hasiberria izan arren, ez du batere arazorik makilak astintzeko. Nahiz eta taldean azkena sartu, Santelmoak baino pare bat aste lehenago, bikain moldatu da taldera gure festa maiteetan ikusi ahal izan genuen bezala.

Santelmoak ezin aipatu gabe utzi. Izan ere, eguraldi txarra zela eta Koma-ko handiputzek jo gabe kobratu eta alde egin ondoren, Santelmo-tan rock pixka bat behintzat egoteko inprobisatu eta Zumaiako estalape maitean behingoz horren "bailableak" ez ziren kantak entzuteko aukera izan genuen. Abentura horretan Itaka-ko lagunek esku bat bota zuten Kamon Behibi eta Itaka kartel bikai-



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

*Juaristi*  
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073



## Kamon Behibi 2005eko udako bira:

Ekainak 17: Debako Gaztetxean  
 Ekainak 25: Itzurungo Hondartzan  
 Uztailak 1: Mendaroko Ormola  
 tabernan  
 Uztailean (eguna jarri gabe):  
 Soraluze, Mutriku, Ondarroa eta  
 Urretxun.

na osatuz. Hurrengorako eskertuko genioke Udalari prebisio pixka bat izan dezan, Santelmoak ez baitira ezagun euren eguraldi eguzkitsua-rengatik.

Bigarren aldiz Zumaian orain dela gutxi jo dute Estazioko festetan. Antolatzaileen presioengatik nahiko goiz jo zuten eta ez ziren oso gustura geratu, baina laster izango dugu behibiak berriz ikusteko aukera. Kontzertu dexente joko dituzte uda honetan eta gehiago jotzeko gogotsu daude. Horretaz gainera, maketa bat grabatzeko intentzioa ere badute, baina oraingoz kontzertuak ematea da beraien lehentasuna.

Gerria eta burua mugitu nahi badituzue, beraz, ez ezazue behibiak ikusteko aukerarik galdu. Beraien abesti frexkoez gain, The Pack-en bi kanta arrakastatsu entzuteko aukera izango duzue: "Xaron Eston" eta "Euskal Herria".




**CRIOISSANTERIA**  
 pizzak  
 hanburgesak  
 bokatak...  
**marina**  
 Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

## ZALLA

Taberna - Erretegia

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387

## Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

amaiako plaza, 2  
 Tel. 943 143278  

**Maite**  
 ileapaindegia

## ITSASKI

SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g  
 Tel. 943 143058

# TOKIKO AGENDA 21



## ASTE BERDEA 2005

Ekainak 5 Ingurumen Nazioarteko eguna izan da. Munduko herrialde askok ospatzen dute egun hori eta gure lurraldean egun horren inguruan Urola Kostako Udaltalde 21ek eta Udal bakoitzaren ekimenez, 2005eko Aste Berdea ospatu da. Maiatzaren 27a eta ekainaren 5a bitartean izan da eta eskualdeko herri guztietan jardura

ugarri burutu dira. Produktu ekologikoen dastaketak, hitzaldiak, antzerki emanaldiak, leku berezien garbiketak, ... parte hartzeko aukera zabala izan dute beraz eskualdeko herritarrek aste horretan zehar. Programaren barnean, Hondakinei buruzko tailer ibiltariak burutu dira Urola Kostako Udal elkar teko herri guztietan eta ekitaldi hori izan da hain zuzen ere, aurtengo Aste Berdeko programaren oinarritzko jardura guztientzat. Hala ere, Zumaian bildu dira ezparririk gabeko 2005eko Aste Berdean, ingurumen sentsibilizaziorako ekintza gehien. Honakoak izan dira burutu diren ekintzak: Algorri Interpretazio Zentroaren zabaltze ekitaldia, zentroko ate irekiak, hitzaldiak, Santikoko dunen garbiketa Zumaiko Natur taldeak antolatuta, Urola Ibaia ren garbiketa Olatxo Sub elkar tearen esku, bertso antzerkia eta argazki iraila.

INFORMAZIO GEHIAGO:  
Tel.: 943 89 00 45  
[www.urolakosta.org](http://www.urolakosta.org)  
[agenda21@urolakosta.org](mailto:agenda21@urolakosta.org)

Karmengo Ama, 14  
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: [bakun@euskalnet.net](mailto:bakun@euskalnet.net)

finés  
french  
euskara  
englantia  
español  
catalonian  
suomi  
basc  
català  
finnois  
français  
anglais  
catalán  
français  
castellano  
finnish  
inglés  
baski  
catalán

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L



B. Etxegarai 2, beheka  
943 86 27 14



Alta-Mari auzategia, 17  
Tel. 943 861569



Antonio Etxabe



Gizonezkoen  
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

boris eta tomatezko zelaia

# "bizitza eta jatea bezala, tomate landarea ere oso oinarrizkoa da"

Ilegoria da Boris, bizarra ere gisa berekoa du eta jertse gorriarekin etorri zen zitara. Begiak argi zituen, zain, tomateak nola gorritzen ziren begiratzeko-edo.

## Zer moduz konpondu zara Inasmet enpresarekin?

Oso ondo. Ondo jardun dut lanean. Beraiek zientzialariak diren heinean, jakin-mina daukate eta neurri batean horrek bultzatzen ditu beraien lana egitera. Enpresa honetan eskatzen dieten edozer diseinatzeko dute, irtenbideak garatuz eta ikertuz. Nik etorri aurretik banekien gutxi gorabehera zer egingo nuen. Komeni izaten da ideia batzuk besapean ekartzea leku berri batera zatozenean. Tokia berria da, jendea ere bai, baita enpresa ere. Posible da ideia onak bat-batean etortzea, baina alde aurretik garatutakoek niri, behintzat, asko lagundu didate.

## Zein ideiarekin ekin zenion lanari?

Lagun batek Frantzia landareak jartzeko balio zuen plastikozko panel batzuk sortu zituen. Ideia horretatik abiatuta, nik landareekin egitura berezi bat sortzeko asmoa neukan. Hasieran zirkoko karpa baten itxura eman nahi nion landare luze eta hostotsuekin, barrutik eta kanpotik perspektiba ezberdinak lortuaz. Baina azkenean aldatu egin nuen.

## Zergatik aldatu zenuen ideia hura?

Tokiaren izaeratik aldatu nuen. Lekuak bultzatu nau plastikozko eus-



"Posible da ideia onak bat-batean etortzea, baina alde aurretik garatutakoek asko lagundu didate"

karri zuriak honela jartzera. Laia eta Santiago etxeen artean ibiliko den jendea batetik bestera eramatea da ideia, publiko ona dela iruditzen zait. Grapak lurrian iltzatuta baleude

bezala sortu dut bidea, eta belarra ebakitzeko albotan sortzen diren belar piloek itxura eman diot. Lerroak apurtzeko, bertan dagoen itsasontzi zaharra ere aprobeztatu dut. Maila sinboliko oso altua du egituraketak.

## Tomateak aukeratu izanak ba al du sinbologia berezirik?

Bai, noski. Tomateak jangarriak direlako aukeratu nituen. Bizitza eta jatea bezala, tomate landarea ere oso oinarrizkoa da. Urtaroak bezain basikoa. Egitura, aldiz, berritzailea da, ezberdina. Oinarrizkoarekin kontrastea eginaz egonkortasun txikiko egiturak dira eta tomateak airean jarri ditut.

## Udan tomateak hazi eta heldu egingo dira. Zaintzailea topatu al diezu?

Gutxi gorabeherako kontuak aterata, uda osoan bi tona tomate emango dituzte landareek. Inbertsioa guk egin dugu eta zaintzailearentzat oso interesgarria da, saltzerakoan ateratako dirua beretzat izango da eta. Jendeak proiektuari zer itxura hartzen dion jakin nahi nuke eta segur aski udan itzuliko naiz Zumaiara.

## Euskal Herria aurrez ezagutzen al zenuen?

Euskal Herrian izan naizen lehen aldia da eta asko ari naiz gozatzen. Hemen-goentzat garrantzitsuena jendea ezagutzea dela iruditzen zait, eta ez zenbat diru daukan erakustea. Ez dago itxurakeria askorik.



mirenek sorgindutako zubia

## "Argiarekin marraztea da nire helburua"

Zubi berrian elkartu ginen Mirenekin. Aurpegi eta eskuei begiratzuz gero, agerikoa zen artelanari azken ukituak ematen jardun berri zuela.

### **Zertan datza Sorgin-zubi proiektua?**

Zubi honi eman diogun pintura berezi baten bidez, egunez kolore neutroa denak gauez argi urdina barreiatuko du. Egunez gauza diskretu bat dena gauez sorgindutako zubia izango da. Ezustekoaren faktorea dauka lan honek. Sentsoreen bidez norbait datorrela sentituko du mekanismoak eta zubi izkinetan dauden fokuek argi egingo diote zubiari. Pintura berezi horrek argia zupatzen du eta gero denbora luze batez barreiatzen argia jariatzen jarraitzeko gaitasuna dauka. Argi urdina erreflektatuko du.

### **Ikusleok, beraz, zubi urdin bat ikusiko du?**

Bai, zubia zeharkatzen ari denak bi aldeetan marra urdinxkak izango ditu bidaide, baina urrutitik begiratzen duenak zubiaren marrazkia ikusiko du urdin-urdin. Perspektibarekin begiratzuz gero, argi urdina jariatzen duen zubia ikusiko da. Magia daukalako Sorgin-zubi izena du proiektuak. Argiarekin marraztea da nire helburua.

### **Nola lortu duzu hain pintura berezia?**

Hau ez da erositako materiala. Hau ikerketa luze baten ondorioa da. Ingalaterran ikertzen jardun dut kimikari



"Egunez gauza diskretu bat dena gauez sorgindutako zubia izango da"

eta zientzialariekin argia jariatuko zuen pintura lortzeko. Nik handik ekarri dut pinturaren formula eta hemen Ulma enpresakoek pintura kantitate handiagoa lortzen lagundu didate.

### **Nolako izan da lankidetzua Ulma enpresako langileekin?**

Lankidetzua oso ona izan da, baina denbora faltak muga asko jartzen ditu. Denbora gehiago beharko genuke proiektuak hobeto garatu ahal izateko. Ulmak berez hormigoi eta polimeroekin egiten du lan, material astun eta pisutsuekin. Nik astuntasun horren aurrean arintasuna bilatu nahi izan dut, gauza iragankor bat lortu nahi nuen. Beraiek direnaren aurkakoa.

### **Londresen bizi den bilbotarra izanda, etxean bezala ariko zara, ezta?**

Bai, alde horretatik berriz ere etxean lan egitea izan da. Oso polita izan da Euskal Herrira etorri eta munduko hainbat bazterretako jendea ezagutzeari. Divergenteseko artistak ezagutu eta komunean gauza asko ditugula konturatu naiz. Elkarriketa interesgarriak sortzen dira gure artean, komunikazioa etengabekoa da. Jende piloak dator eta informazioa dakarte, informazioak ibilian dabiltzanean sortu egiten du. Proiektu berriak sortzen ditu, ideia edo ikuspuntuak. Hori da Divergentes proiektuaren alderik indartsuenetako bat: ideiak edo proiektu berriak erretzeko toki paregabea izatea.

flavien ikusi-makusika

# "Ispilu batek sortutako erreflexua da errealitate birtualik errazena"

Santiago etxeko lehen solairua ilun zegoen eta bertan jardun genuen Flavienekin, bere artelanaren birtualitatea mintzagai genuela.

**Ezustekoa duen artelana da zurea.** Nire lanak errealitatea birtualarekin jolasten du. Jendeak aretora sartzen denean pantaila handia ikusiko du lehenbizi. Gero lurrean dagoena ispilu handi bat dela konturatuko da eta onena azkenean dator. Jendea geldirik baldin badago ez da ezer agertzen ispilu horretan, baina mugitzen hasitakoan irudi batzuk hasten dira mugitzen. Jendeak bere presentziarekin soilik espazioan eragina duela adierazi nahi dut. Gauzak eraldatu ditzake jendearen presentzia soilak.

**Artelanaren izena ere berezi xamarra da.**

Kasualitate batzuen ondorioa izan da. Lanaren izena 'Potencial, Santa Luziaren ispilua' da. Etxearen berezko izena Santa Luzia izateaz gain, begiak kendu zizkioten saindua ere bada. Saindu hark ez zuen begirik behar gertatzen zena sinesteko eta horrek egiten dio nolabaiteko erreferentzia gaur egun lantzen den errealitate birtualari. Ikusten dena eta ikusten ez dena lantzen ditut nik lan honetan.

**Zer moduzkoa izan da Vicomtech enpresarekiko harremana?**

Orokorrean ona izan da, baina batzuetan zaila ere bai. Beraiek



"Gaur egun guztiok etengabe erabiltzen ditugu teknologia berriak, baina ez dakigu nola funtzionatzen duten"

enpresako zereginak dituzte eta prozesu horretan eten bat sortzen duguk. Errealitate birtualaren esparruan berezitatea daude Vicomtech enpresan, baina nik interfaze klasikoa apurtu nahi nuen. Normalean egoten den pantaila arrunta bakarrik ez nuen jarri nahi. Horregatik jarri diot ispilua, erreflexu bat sordezan. Ispilu batek sortutako erreflexua da errealitate birtualik errazena, ideia hori da nik adierazi nahi nuen.

**Zer izan da zailena sortze prozesu guztian?**

Zalantzarik gabe, zailena enpresatik kanpora informazioa bilatzea izan da. Erabili ditudan erremintak nola funtzionatzen duten dakien jendea topatzea izan da gauzarik nekezena. Egia handi batekin egin dut topo: gaur egun guztiok etengabe erabiltzen ditugu teknologia berriak, baina ez dakigu nola funtzionatzen duten.

**Beste bederatzi artistekin nolako harremana izan duzu?**

Harremana oso ona izan da. Laguntasun handia erakutsi didate, gauero elkartzeko gara zerbait hartzeko. Herritarrak ere jatorrak direla iruditu zait. Ingelesekin edo frantsesez hitz egiten dutenekin bakarrik jardun dut eta hori muga bat da, baina oso eroso egon naiz. Baliteke udan Zumaiara itzultzea.

## Beobiden omenez, Jose Mari Herrera

ISMAEL MANTEROLA

Jose Mari Herrera eskultoreak, gai zaila konpondu behar zuen: Beobideri egindako omenaldia, hau da eskultura publikoak historian zehar izan duen oroimenaren zeregina, era modernoan azaltzea. Horretarako ate formako bat ireki du ibaiaren ertzean, atea zeharkatzen dugunean Beobideren denboran sartzen gara argazkiaren bidez. Argazkiak iraganaren denboraren lekuko izatea du ezaugarri nagusizat, memoriaren gordailua izatea, hor daukagu Beobide eskultorea lanean, berak gehien baloratzen zuen zereginen. Hori adierazteko, hau da, eskulturaren lana, Herrerak marmol zatia jarri du.

Hor dago nire ustez, eskulturaren alderik interesgarrienetako eta arrakastatsuenetako bat, monumentuaren ideiarekin bat egitea (hau da oroimenaren funtzioa betetzea), baina era modernoan, monumentua izan gabe, gaur egungo eskultura izanda.

Beobideren denbora gelditu egin zaigu, Zumaiako sarreran. Atea zeharkatzen dugunean eskultorearen denboran sartzen



gara, denbora geldirik. Beobiderentzat denborak ez zuen garrantzirik, beti gauza beraiek egiten baitzuten, egunero erritual bera, egun guztiak berdinak ziren. Eskultura lana ere denboratik kanpo zegoen, idealen bila jotzen zuenez (tipoak) eta erlijioaren irudiak denboratik kanpo daudenez, eskulturak ez zuen aldaketarik izan. Bere arteak ez zuen modaren beharrik edo aldaketen berri jakin beharrik, tradizioarekin lotura gogorra zuen eta lanetik irtendako emaitzak balio unibertuala zuen, atzo, orain eta gero.

Aldi berean Herraren eskulturaren egungo eskulturaren ezaugarriak azaltzen zaizkigu: material ezberdinen elkarketa (metala, marmola, kristala, argazkia), figurazioa eta abstrakzioaren arteko eztabaida eza (argazkiaren figurazioa eta forman abstrakzioa) eta zatia eta osotasunaren arteko jokoak. Azken hau posmodernitatearen munduan murgiltzen gaitu, osotasuna pentsatzeko gai ez den kulturaren, zatiak, zatiak nagusi dira, ez dago batasunik.

**ilarzi**  
Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24

**Itzurun**  
ATEAK

- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua  
Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Errategio  
OIKIA 943447083

## ZINE FORUM

ekainaren 24a, ostirala, gaueko 10:15ean **saio bikoitza**

### Antes del atardecer

**Zuzendaria:** Richard Linklater

**Aktoreak:** Ethan Hawke, Julie Delpy

Film hau *Antes del amanecer* (1995) filmaren jarraipena da. Lehenbizikoan Celinek (Julie Delpy), Budapesteko amonari bisita egitetik Parisa itzulian datorren



neska gazteak, Texas-era itzuli behar duen mutil gazte batekin (Ethan Hawke-rekin) trenean egingo du topo. Biak gau osoa Vienan berriketan eta maitemintzen iragango dute. Azken agurrean, sei hilabetera egingo dute hitzordua leku jakin batean. Bederatzi urte iragan dira. Zergatik ez zuten elkar ikusi sei hilabetera? Hori kontatzen du pelikulak. Jada ez dira hain gazteak. Denboraren goldeak aurpegian lorratzak ireki dizkie. Baina oso poztu dira elkar berriro ikustean. Eta Parisen. Arratsalde osoa elkarrekin ibiliko dira Parisko kaleetan, tabernetan... Elkarki bihotzak irekitzen, berriketan. Elkar maite ote dute oraindik? Amaiera oso irekia duen film samurra eta maitagarria dugu hau, eskarmentu handiaz eginga eta idatzia, eta noizbait maitatu duen orok nahitaez ikusi beharrekoa. Gozamena.

### 9 songs

**Zuzendaria:** Michael Winterbottom

**Aktoreak:** Kieran O'Brian, Margo Stilley

Hegazkin bat Antartikako eremu izoztuak zeharkatzen ari da. Hegazkinean zientzialari britainiar bat doa, Matt izenekoa. Hilabete batzuk lehenago Lisa izeneko neska estatubatuar batekin Londonen izandako harremana du buruan. Sexua eta rock musika izan ziren harreman haren ardatzak, harik eta Gabonak heldu eta neskek etxera itzuli behar izan zuen arte. Behea jota, Mattek Antartikara jo du, lanean murgilduz Lisa ahaztuko duelakoan.



Michael Winterbottomek (*In this world*) sexu harremanak eta rock kontzertuak erabiltzen ditu bi pertsona hauen harremana kontatzeko. Bere aurreko pelikuletan sexua nahiko era naturalean erakusten zuen; orain, berriz, ikusle asko zur eta lur utziko dituzte film honetako eszena "erotikoek". Musikari dagokionez, rock independenteko talde ezagunek (besteak beste, Primal Scream edo Franz Ferdinand) Londongo Brixton Academy aretoan emandako kontzertuetako irudiak tartekatzen ditu zuzendari britainiarrak.

Gidoirik gabe bideo digitalean grabatutako pelikula da 9 songs; dialogoak, berriz, filmazioan bertan bi aktoreek eta zuzendariak berak inprobisatutakoak. Batzuentzat pornografia hutsa; beste batzuentzat, berriz, ia hitzik behar ez duen maitasun istorioa. Norberak erabaki dezala.

GOIKO BODEGOIA  
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAI A • Tel. 943 861 191

OPTIKA ZUMAI A

Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I A

*ilarzi*

Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24

Itzurun  
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako persianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

GIKIA 943447083

## EKAINA

Ostirala 10: 19:00etan "Zumaia" erakusketaren barne, Aranzadi Zientzia Elkartearen hitzaldia "Guda zibileko fusilatuen gorpuen errekupeazioak. Guda zibileko hainbat testigantza" 22:00etan antzerkia, POK-AEK "Euskararen Zazpi Bekatu Nagusiak"

Larunbata 11: Gaztetxolaren Futbolar txapelketa

Igandea 12: 12.30ean Aita Mari aretoan, GU GEUren esku, "Ipuin Musikalak"

Ostirala, 17: 19.00etan Algorri-Interpretazio Zentruan, Aste Berdearen Argazki Rallieko Saribanaketa eta proiektzioa. 22.30ean Emakumearen Nazioarteko martxaren barne, "Pakitarantz bakarrik" antzezlan.

Larunbata 18: 11:00etan "Euskara eta Kirola" festa Eusebio Gurrutxaga plazan

Asteazkena 22: 17.30ean San

Telmo Literatur Lehiaketako saribanaketa.

Osteguna 23: arratsaldean, Gaztetxolako Agur Festa 22.00etan San Juan Iturrian, San Juan Suak.

23.30ean Itzurun hondartzan, "Zuberoako su eta olerki ikuskizuna"

Ostirala 24: 22.15ean zine forum saio bikoitza: "Antes del atardecer" + "9 songs"

Larunbata 25: 23.00etan Itzurun gainean, Musika Eskolako Rock ikasturteko amaiera kontzertua.

Igandea 26: 11etan hasita ARTISAU AZOKA


Asteartea 28tik uztailaren 1era SAN PEDRO Jaiak

Asteartea 28: iluntzean, ZUMAIA SARIK banatuko dira.

## ERAKUSKETAK

Maiatzak 26-ekainak 19: "Zumaia" Zumaira"

Ekainak 23-uztailak 10: "Arau Subsidiarioak"



## Denboraldi amaierako festa

2004-2005 zine forum denboraldi amaierako festa izango da ekainaren 24an Ihintza tabernan. Aurretik, Aita Mari zinean bikote harremani buruzko zine saio bikoitza izango da. Gueko 10:15etik aurrera *Antes del atardecer* eta *9 songs*. 2 ordu eta erdi eskasean bi pelikula!!

Ekainak 24-uztailak 10era CARMEN PALOMERO

Ekainak 1etik aurrera: Zumaia Dendari Elkarte dendetan, Forondako Pintura Tailerreko Lanak ikusgai.

## IRTEERAK

- ARRIAGARA: Ekainaren 11ean,

"Japongo Tanborren ikuskizuna" ikustera. Informazioa eta sarrerak kultur etxean (943-861056)

- TURISMO BULEGOAK antolatuta (943-143396)

- maiatza 15 eta 29 TREKKIN DEBA-ZUMAIA bisita gidatua

-BISITA BEREZIA ZUMAIARRENTZAT - SAN PEDRO PARROKIA. maiatzak 28.

## DEIALDIK

- ZUMAIA LORETAN 2005- Balkoi eta Leihoetako lehiaketa. Ekainaren 23an. Oinarriak eta izen-ematea Turismo Bulegoan (943-143396) edo Kultur Etxean (943-861056)

amaiako plaza, 2  
Tel. 943 143278

**Maite**  
ileapaindegia

**Malaur**

tresna digital  
internet  
scanner

**Ertz**  
informatika

Eusebio Gurrutxaga, 6  
Tel. 943 14 33 95

**DALAC**  
COMPLEX

**L**  
PRACTICAS

**AUTO-ESKOLA**

**STOP**

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua  
- Praktika eta azterketak Azpeitian  
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

**ZUMAI A**

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia

**Maxi**  
**Solarium**

ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21

**taberna JUSTA**  
eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

**LEIZE**  
taberna

Juan Belmonte, 6

ileapaindegia

**IZETA**

Urumea, 6 Tel. 943 862083

# onura

fisioterapia zentroa

*amaia zubimendi*

fisioterapeuta kol. 855

kontsultak

tel.: 943 24 54 50

*larunbatetan, ordua aurrez hartuta*

aita mari, 42 • 20750 zumaia (gipuzkoa)



• zerbikalgia:  
buruko minak,  
zorabioak...

• lumbalgia:  
ziatika, hernia  
diskalek...

• tendinitisa, kontraktura  
eta zaintiratuak.



• artrosia  
eta artritisa



• erditze aurre  
eta ondorena  
(epifisiotomiak,  
perinearen  
heziketa...).



• inkontinentziaren  
tratamendua  
eta enpatxua



• estresa.

## Ardantzabide

altzariak - aroztegia



**BEHERAPENAK!!**

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia

Tel/faxa: 943 862 532

Tailerra: Santixo auzoa 40